


Solas egiteko Inuiak



GIDALIBURU DIDAKTIKOA

The logo for 'edex' features a stylized sunburst icon above the word 'edex' in a rounded, lowercase font.



© EDEX, 2016
Egilea: Gladys Herrera Patiño
Argitaratzailea: EDEX
e-mail: edex@edex.es
www.edex.es
ISBN:978-84-9726-917-9

Argitalpen honen eskubide guztiak EDEXek gorde ditu, eta ez da zilegi argitalpen hau osorik edo zati batean kopiatzea, EDEXen aldez aurretiko baimen idatzirik gabe.

NIRE IZENA... Gizaki ororen izenaren atzean kontakizun bat dago: nork aukeratu zuen eta zergatik, nor ez zegoen ados, zein izan ziren azken orduko aldaketak eta zer ekarri duen izen hori izateak. Gauza bera gertatu ohi da herrien, abestien eta ipuinen izenekin. Hona hemen, hortaz, geure kontakizuna:

BIZITZEA da, agian, aditzik handiena. Gainerako aditz guztiak barne hartzen ditu. Bizirik gabe ezingo ginাতেke jolastu, lasterka egin, salto egin, irakurri, ibili, musu eman, margotu, amets egin... Aditz txiki horiek guztiak berba anitz dauzkate barnean, eta haiek ere beste horrenbeste.

BIZITZAREN ABENTURA Horregatik mintzo da EDEX Bizitzaren Abenturaz². Izen hori jarri zion BIZITZEA abentura bat delako. Bizia osatzen duten izaki eta atseginen bilduma anitza eta mugagabea ulertzen saiatzea abentura zirraragarria delako.

Abentura bat abentura izateko, hunkigarria (gaztelaniaz, “hemocionante”) izan behar du. Gustavo Wilches-Chaux ekologista kolonbiarrak zuen, hemoglobina hitzarekin gertatzen den bezala, etimologikoki “odola zainetan irakinarazi” esan nahi baitu.

Ongi pasatzea eta zoriontsu izatea. Horixe da, hain zuzen, gizaki orok mundu honetan duen egitekoa. “Inor ez zen maisu, gidari, arkitekto edo mediku izateko jaio... Gizaki oro zoriontsu izateko jaio zen”.

Eskuetan duzun ikasmaterialarekin, Bizitzaren Abenturarekin zerikusia duen oro hunkigarria (“hemocionante”) izatea lortu nahi dugu. Ipuin hauek entzutean oroitzapenak azaleratu eta irribarreak agertzea espero dugu. Guztion artean bizitzaz solas egiteko giro egokia sortuko ahal dugu!

Bizitzaren Abentura. Solas egiteko ipuinak	7
Nola lantzen dira ipuinak	11
Laburpena eta sortzeko iradokizunak	19

1. Hatzeko ipuinak

Ene burua aintzakotzat hartzen dut

Lagunen eskua	20
Untxia beti eta beti	20
Su txikian	21
Erremedio bikaina	22
Bizitzeko gogoa	23
Korrika egin eta kontatzea	24
Komunaren hondamena.	24
Esaten dutena esan arren	25
Eguneroko dutxa	26
Denetik pixka bat	27

Aintzakotzat hartzen zaitut

Loturak eta edalontziak	27
Koltxoneta hegalariak	28
Aulki hutsa	29
Zabaldu zure besoak	29
Letratxoa	30
Ronik gabeko mahaspasa-izozkia	31
Iruzur galanta	32
Automobilek loditzen dute	33

Aintzakotzat har nazazu

Lagunartean hobe	34
Sekretuen sekretuak	35
Ordenarik ezaren garrantzia eta...	36
Modako otzara	39

2. Hazten jarraitzeko ipuinak

Ipuin orekatuak

Lehenengoa eta azkena	40
Ez dut ezer egiteko gogorik	41
Ezin hobea ezinezko	42
Hitzez hitz	43
Harat-honat korrika	44
Adedos?	45
Nolabaiteko saskia	46

Ipuin kutsagarriak

Zorionaren zerrenda	47
Bi izatearen abantaila	47
Gaixorik	48
Nire galtzak	49
Izarrak	50
Nire aitaxoren berrogeiak	51
Tiro...zer?	52
Gezur-ehizaldia	53
Parke zalea	54
Ostiral itxurako igandea	54
Itzali	55
Ezetz, seguru	56
Nire lagun mina	58
Dortoka jauna	58
Oso familia normala	60

BIZITZAREN ABENTURA

SOLAS EGITEKO IPUINAK

	GAIAK	1	HAZTEKO IPUINAK	2	HAZTEN JARRAITZEKO IPUINAK
AUTOESTIMUA	NORBERAREKIKO BEGIRUNEA	4. Untxia beti eta beti. 13. Loturak eta edalontziak. 15. Aulki hutsa.			11. Zorionaren zerrendaa.
	ERRONKEI AURRE EGITEA	5. Su txikitan. 9. Komunaren hondamena. 17. Letratxoa.			10. Nolabaiteko saskia.
BIZITARRAKO GAITASUNAK	TENTSIOA ERABILTZEA	8. Korrika egin eta kontatzea. 14. Koltxoneta hegalariai.			8. Harat-hona korrika. 12. Bi izatea abantaila.
	HARREMANAK IZATEA	3. Lagunen eskua. 6. Erremedio bikaina. 19. Iruzur galanta. 22. Sekretuen sekretuak.			3. Lagunen eskua. 20. Ostiral itxurako igandea. 22. Ezetz, seguru.
	ERABAKIAK HARTZEA	10. Esaten dutena esaten arren.			6. Ezin hobe ezinezkoa. 9. Adedos? 14. Nire galtzak.
DROGAK	SENDAGAIK				7. Hitzez hitz. 13. Gaixorik. 17. Tiro...zer?
	ALKOHOLA	18. Ronik gabeko mahapasa.			16. Aitaxoren berrogeiak. 19. Parquezalea.
	TABAKOA	7. Bizitzeko gogoia.			4. Lehenengoa eta azkena. 18. Gezur - ehizaldia. 21. Itzali.
OHITURA OSASUNGARRIAK	LANA ETA ATSEDENA				5. Ez dut ezer egiteko gogorik. 15. Izarrak. 23. Nire lagun mina. 25. Familia guztiz normala.
	ELIKADURA	12. Denetik pixka bat. 16. Zabaldu zure besoak.			
	SEGURTASUNA	20. Automobilerik loditzen dute. 21. Lagunartean nobe.			24. Dortoka jauna.
	HIGIENEA	11. Eguneroko dutxa. 23. Ornarik ezaera garrantzia... 24. Modako otzara.			

BIZITZAREN ABENTURA

SOLAS EGITEKO IPUINAK



"Hemen ipuinekin bizi gara; ipuinekin jaten dugu, ipuinekin hazten gara. Ez dira ikuskizun bat, ezta egundoko gertakaria ere, gure egunerokotasunaren zati baizik".¹

IPUINAREN ORDUA Gizakiok hezurak, giharrak, odola eta azala ditugu, bai, baina baita ipuinak ere gure barruan. Edozein osasunerakundetan ipuin-bankua izan behar lukete. Etxean, bazkalorduan, ipuin-platerkada atera behar ligukete. Eskolan askoz gehiago ikasiko genuke ipuinekin.

Mario Kaplún-ek, komunikatzaile uruguaitarrak, hauxe esan zuen: "Hobe da kontatzea azaltzea baino". Ipuin batekin mundua irudika dezakegu, inguruko pertsonekin harremanak izan eta komentatu. Hori da, hain zuzen, Bizitzaren Abenturaren ipuinekin egin nahi duguna: tartetxo bat hartu solas egiteko. Neska-mutilen ahotsak entzun daitezela eta haien ezpainak irribarrez bete.

44 IPUIN 2 CD-TAN Bizitzaren Abentura. Solas egiteko ipuinak bildumak 44 ipuin ditu guztira eta bakoitzak hiru minutuko iraupena du batez beste. Bi CD-tan aurkezten dira, "Hazteko ipuinak" eta "Hazten jarraitzeko ipuinak" izenekoak. Ipuin gehienak Bizitzaren Abenturaren albumetan inprimaturik agertzen diren kontakizunen entzunezko egokitzapenak dira. Beste zenbait okasiorako idatzi dira.

Bost pertsonaia dira ipuin-kontalariak. Hamar bat urte dituzte. Elena ahazkorra eta atsegina da. Nerea itsua da, lagunek baino askoz gehiago ikusten du ordea. Mikelek aise egiten du barre, lasaia da eta jan eta jan dabil denbora guztian. Dani, Nerearen neba, kirol zalea da eta baloia du beti eskuetan. Eta Josu, Mikelen anaia, ezin hobea, dena kontrolpean izateko duen irrikagatik da ezaguna.

1. "Honorá", Grand Azoukin herrixkakoa (Boli Kosta, Afrika). Nicolás Buenaventura Vidalek "Viaje a la tierra de los griots" artikuluan aipatua eta América Negra aldizkariaren 10. alearen 178. orrialdean argitaratua, 1995eko abenduan.

HAZTEKO IPUINAK Norbera da bere ongizatearen arduraduna. Horixe da ahaztu behar ez den lehenengo ipuin posiblea. Hobeto kontatu ahal izateko, hiru multzotan bildu ditugu lehenengo CD honen 22 ipuinak. Horrela antolatu ditugu osasuna pertsona batek bere buruarekin, inguruko pertsonekin eta ingurumenarekin duen harreman atsegingarria dela uste dugulako.

- **Ene burua aintzakotzat hartzen dut:** Gure nortasunak, gure gorputzak, gure izateak, ezer baino lehen, gure burua aintzakotzat hartu behar du. Pertsona osasuntsua bere burua maite duena da, bere buruari begirunea erakusten diona eta gehien komeni zaiona erabakitzeke burujabea dena.

Lehenengo multzo honetan, Bizitzaren Abenturaren protagonistak nork bere ongizatea bilatzeko egin duenari buruz mintzo dira.

- **Aintzakotzat hartzen zaitut:** Nolakoa izango litzateke gure bizitza bakarrik bageunde, inguruko pertsonarik gabe? Ingurukoek ematen digute (edo kendu) hazteko eta egunetik egunera pertsona zintzoagoak izateko aukera.

Bigarren multzo honetan, Bizitzaren Abenturaren neska-mutilek ingurukoek beren ongizatea aurkitzen laguntzeko egin dutenari buruzko istorioak kontatzen dizkigute.

- **Aintzakotzat har nazazu:** Zentzu berean, pertsona osasuntsua da ingurukoak maite dituenak, ingurukoek begirunea erakusten diena, ingurukoekin bakean bizi dena eta ingurumenarekin harreman orekatua duena.

Horregatik, hirugarren multzoan, Bizitzaren Abenturaren protagonistek ingurukoek beren ongizatea aurkitzen nola lagundu dieten kontatzen dituzten ipuinak agertzen dira.

HAZTEN JARRAITZEKO IPUINAK Badaude gure osasunari proba egiten dioten egoerak. Oraingoan, bi aukeratu ditugu: krisialdiak eta kutsatzeak. Une eta egoera larrietatik onik ateratzea osasun onaren adierazgarria da. Gizaki gisa hazten jarraitzeko bitaminak dira. Bigarren emanaldi honek, “Hazten jarraitzeko ipuinak” izenekoak, beste 22 ipuin ditu. Honatx haien antolamendua:

- **Ipuin orekatuak:** Bizitzan dena ez zaigu beti ondo joaten, baina ez zaigu zertan gaizki joan. Balantza hori orekatzen ikastea osasun onaren adierazgarria da. “Ipuin orekatuak” izeneko multzoan, koadrilako neska-mutilek gertatu zaizkien une larrienetako batzuen berri ematen digute.
- **Ipuin kutsagarriak:** Bizitzan ikasten ditugun gauza asko ez digu inortxok ere irakasten, eta hala eta guztiz ere, ikasi egiten ditugu. “Ipuin kutsagarriak” izeneko atalean, Bizitzaren Abenturaren protagonistak zenbait tokitatik edo pertsonarengandik jasotako erakusbideek haiengan izan duten eraginaz mintzo dira.

HAMABI GAI Bizitzaren Abenturaren egitarauaren edukiak lau ardatzen inguruan antolatzen dira, eta haiek, era berean, hamabi gairen inguruan: autoestimua (norberarekiko begirunea eta erronkei aurre egitea), bizitzarako gaitasunak (tentsioa erabiltzea, harremanak izatea eta erabakiak hartzea), drogak (sendagaiak, alkohola eta tabakoa) eta ohitura osasungarriak (lana eta atsedena, elikadura, segurtasuna eta higiena).

Gaiak aurkitzea errazagoa izan dadin, ondoren aurkeztuko den koardroan aipatu gaiak eta ipuinak jasotzen dituzten bi CD-ren arteko elkarrekikotasuna ageri da.

NOLA LANTZEN DIRA IPUINAK?

BI BELARRIREKIN ETA AHO BATEKIN



NESKA-MUTILEN AHOTSA Aitona-amonekin edo neska-mutilekin mintzatzeak sendatzen omen du, baina benetako sendagarria mintzatzea da eta ingurukoek aditzen dizutela jakiteak dakarren poza. Hona hemen Bizitzaren Abenturak lortu nahi duena: neska-mutilei, ipuin hauek entzutean hitz egiteko gogoia piztea.

Zeuk ere izango duzu mintzatzeko aukera, baina ez neska-mutilek beste. Zure egitekoa neska-mutilei mintzaraztea izango da. Gogoratu bi belarri eta aho bat dituzula: mintzaten duzunaren bi halako entzun dezazun.

Indarrez beteriko tokiak -elkarrekin mintzatzeko zein elkar argitzeko-eraike ahal izango ditugu zure eskuetan dituzun ipuinen entzunaldia-rekin, hemen proposatzen dizugun zenbait ideia eta jolas-ariketarekin, zure kemenarekin eta neska-mutilen partaidetza gogotsuarekin. Hau da, hain zuzen ere, Bizitzaren Abenturaren entzunezko-ber-tsioren asmoa: gure egunoroko abenturan gertatzen zaizkigun ger-takariei buruz solas egitea.

SOLAS EGITEA Bizitzaren Abentura 6 eta 11 urte arteko neska-mutilengan ohitura osasungarriak sorrarazten dituen saila da. Horregatik, hasiera bertatik hasi nahi dugu. Solasaldiak edo elkarriketak sorrarazi beharreko lehenengo ohitura osasungarria izan behar du: hizlari hobeak izaten ikasi behar dugu azken batean. Ohitura horrek beste ohitura osasungarri batzuk sortzen lagunduko digu.

Eskolan, etxean, hirian, oso ohituta gaude bakarriketara. Pertsona bakarra mintzatu ohi da; oro har, arrazoi duela uste duena. Bizitzaren Abenturan, inork ez du ezer irakatsiko. Guztiak hitz eta pitz arituko gara, guztiak elkarrekin ikasiko dugu. Inor ez da oker egongo. Solasalditik abiatuz, hain zuzen ere, norberak pentsatu, sentitu eta egiten duenaren esanahia edo zergatia aztertuko dugu.

KONFIANTZA Komunikazioa konfiantza kontua da. Zuk konfiantza handia ala txikia izan dezakezu zeure buruarengan. Pentsatu konfiantza ematen dizuten pertsonengan. Zein da sekretua? Besteek entzuten dizutela jakitea, maite zaituztela jakitea, ongi sentitzea.

“Maite aditzaren antza gehien duen aditza entzun da”². Elkar maitatze-ko ez dugu berdin pentsatu edo sentitu behar. Berezi samarrak izatea da gizaki gisa dagokigun eskubide handia. Ingurukoen berezitasun hori maitatzea da (inolako baldintzarik gabe, inolako esamesa iraingarri-rik gabe edo jokabide ahalkegarri-rik gabe) ingurukoak gurekin fida- tzeko edo guregan konfiantza izateko modukoak egiten gaituena.

Norbera den bezalakoa izateak konfiantza areagotzen du. Beste pertsona bat bezalakoa izateko itxurak egiteak konfiantza gutxitzen du. Hizkera xumea eta hurbila erabiltzeak, lagunekin mintzatzeko erabiltzen dugun hizkera erabiltzeak konfiantza sendotzen du.³

HITZ EGITE ALDERA HITZ EGIN Bai. Funsgabeen, modu batean edo bestean jardutera behartzen gaituen inolako oharrik gabe. Zerbaiten edo norbaiten aurrean ondo geratzeko kezkarik gabe. Horrela, nahierara, inolako presiorik gabe, hitz egiteak dakarren pla- zeragatik hitz egitea. Hori dirudiena baino askoz garrantzitsuagoa da: hitzen bitartez gure pentsaera jakinarazten dugu. Ideiak sortzen dira, eta ideia berriak sorrarazteko desager daitezke edo indar dai- tezke. Hitz eginez gure pentsaera egituratzen dugu.

Lortuz gero, aurrerapauso handia emango dugu. Gainerakoa, iraba- zia izango da.

-
2. Nicolás Buenaventura-k esaten du, “La importancia de hablar mierda” liburuan, hain zuzen. 57 or. Cooperativa editorial Magisterio. Santefé de Bogotá, 1995.
 3. Material hau probatzerakoan, neska-mutilek irakasleenganako mesfidantza agertu zuten, ikasleak irakasleak maite baino gehiago, haien beldur izaten baitira maiz. Ekintzekin eta hitz gutxirekin, konfiantza handitzen dugu.

ETA ONDOREN, ZER? Gogora ezazu zure zeregin nagusia hizketaldia sorraraztea eta besteek kontatzen dutena entzutea dela. Neska-mutilek kontaturiko hamaika kontakizun sortuko dira: fantasitikoak batzuk, beste batzuk, beldurgarriak; hurrengoak, mingarriak. Kalitate handiko informazioa jaso ahal izango duzu.⁴

Eta hori guztia, zertarako? Zer egin dezaket horrekin guztiarekin? Hala dio atsotitz batek: “Kepari latina irakasteko, lehenengo eta behin, Kepa ezagutu behar duzu, eta ondoren, latina”.

Informazio horri esker, guztiok gure neska-mutilak nor diren, zer pentsatzen duten, zer sentitzen duten, nola bizi diren jakingo dugu.

Hezkuntza formala gehiago arduratzen da irakasten duenaz, eta oso gutxi nori irakasten dion ezagutzeaz. Telebistak, zinemak, publizitateak eta hezten duten gainerako eskaintza informalak, berriz, jasotzailearen nahiak, beharrak, ohiturak eta jokabideak aztertzeari adi daude. Horren bidez, baztertuak izateko arriskuak gutxitu eta onartuak izateko aukerak handitu nahi dituzte, hau da, haurrek beren produktuak eros ditzatela.

Jakin badakigu, herri askotan, esaterako, neska-mutilei ez zaiela eskolara joatea gustatzen, eta ezer gutxi egiten dugu egoera aldatzeko.

NOLA BILAKATU INTERESGARRI GURE JAKIN-MINA? Topaketa hauetatik eta Bizitzaren Abenturaren ipuinetatik, neska-mutilentzat bitziza ahalik eta interesgarriena egiteko eta ahalik eta hobekien bizitzeko gakoak eta argiak sortuko dira, gizalegez, duintasunez eta osasunez, alegia, eta ez edonola.

Ez da nahikoa helburu edo jakin-min sendoa izatea, esaterako, ongi bitziza, gaiari buruz mintzatzean gogaikarriak izaten bagara. Neska-

4. Xehetasunik ez galtzeko eta ahanzturaren aurka txertatzeko, Bizitzaren Abenturaren saio bat bukatzen den bakoitzean, gogoan hartu garrantzitsuen iruditu zaizuna.

mutilei sermoiak eta hitzaldiak botatzen dizkiegu, eta haiek liluratu edo haien jakin-mina sortu beharrean, uxatu egiten ditugu. Bizitza bezalako gai ederrek trataera ederra merezi dutel!

IKASLEEKI SOLAS EGITEN Ondorengo orrialdeetan ipuin bakoitzaren izenburua aurkituko duzu, baita laburpena eta ipuin bakoitzak kontatzen dituen egoerei buruzko solasaldi ederra sorrarazteko eta saioa garatzeko proposamenak ere.

Ondoren iradokitzen zaizkizun saioak osorik probatu dira. Ingeniari zibilak inaugurazioa baino lehen zubi berria probatzen duen bezalaxe, guk ere, zuregana heldu baino lehen, osasunean hezteko komunikazio-proposamen hau probatu dugu. Beharrezko egokitzapenak burutu genituen hizketaldi erakargarri eta emankorrak bermatzearen.

Proposamena sendotzeko, nahi beste iruzkin zein iradokizun egiteko gonbita egiten dizugu. Gure web orrian aurkituko duzun ondoko helbide elektronikora bidali: www.osasunkume.net. Aldi berean, proposamenari ekiteko baliagarri gerta dakizukeen zenbait ikasketa zurekin partekatzen dugu. Hona hemen:

- Bukatu gidaliburu hau irakurtzen. Gogora ezazu ipuinak multzo berezietan bilduta daudela. Ordenan lantzea gomendatzen dizugu.
- Kontuan izan batzuetan ipuina proposatutako ariketa baino lehen edo ondoren entzutea iradokitzen zaizula. Beharrezkotzat jotzen baduzu, saioa bukatu baino lehen errepika dezakezu ipuina.
- Ez ezazu zure burua salatu. Ez kontatu egingo duzuenena. Ezta egingo duzuen hori oso garrantzitsua dela ere. Garrantzitsu bilakatu, eta harri eta zur utz itzazu ikasleak.
- Ikasmaterial hau 6 eta 11 urte arteko neska-mutilentzat da.
- Jakin badakigu zaila dela ipuin hauek egoera onenean entzutea, baina ahaleginak egin itzazu:

- Saio hauei ekiteko ezinbestekoa duzu giro lasaia eta patxada-tsua sortzea. Ikasleek oso gogoko izaten dute ikasgelatik behin eta berriz irtetea, eta horrela ez dago ezer egiterik. Ez dago elkarrekin hitz egiterik zarata handia badago, pertsonak sartu edo irteten badira, presa badugu, gose bagara, bero bagara...
 - Prestatu egun batzuk lehenago saio bakoitza lantzeko beharko duzun materiala, bai eta ipuinak entzuteko grabagailua ere.
 - Hizketaldi hauetan 20 ikaslek parte hartzea gomendatzen dizugu, baina nahi baduzu, talde handiagoa antola dezakezu.
 - Ahal izanez gero, antolatu taldea biribilean, horrela inork ez dio inori bizkarra emango.
- Saio bakoitzean ipuin bakarra lantzea gomendatzen dizugu.
 - Saioen iraupena aldakorra da; hizketaldiaren berotasunaren eta kalitatearen arabera. Hobe da saio bakoitzak ordu bete baino gehiago ez irautea.
 - Saio gehienetan, ikasleek oharrak idazteko orriak izango dituzte. Jakinaraz iezaiezu ez dituzula inoiz jasoko, han idazten duten informazioa pribatua delako. Orri horien orde, Bizitzaren Abenturaren saioetarako soilik den koaderno bat jar liteke. Ondo legoke koadernoari orriak arazorik gabe kentzeko modukoa izatea.
 - Saio hauek astero antola daitezke. Horrela, urte osorako behar adina material izango duzu. Eskola batzuetan ikasleek tutorearekin mintzatzeko tartetxoak izaten dute egunero, ikasleen arteko gatazkak konpontzeko, hain zuzen ere. Ondo legoke tartetxo hau pertsona guztien ongizateari eskaintzea. Beste eskola batzuek “afektibitatea”, “etika” edo “tutoretza” bezalako gaiak lantzeko edota elkarrekin mintzatzeko tartetxoak izan ohi dituzte. Ziur gaude materialaren berri izatean duzunean, aski ongi jakingo duzula non kokatu. Ikasmaterial hau ez baita irakasgai jakin bate-

rako egin. Irakasgai guztietan egon behar luke. Gizakiok elkarren antzekoak garenez gero, pertsona orori dagokiona laburtzen du materialak: bihozberatasuna, gure artean harreman onak izateko dugun gaitasuna...

- Jarduera batzuk gurasoekin egin ditzakezu. Saia zaitetz zure erakundeak elkartzen dituen organizazioekin batera burutzen, hau da, gurasoen elkarteekin edo eskolekin.
- Ez ezazu ez ondorio handirik ez txikirik espero. Helburua ez da norbait konbentzitzea, elkarrekin hitz egitea baizik. Demagun zure etxeko egongelan zaudela, lagunartean, solasean. Kontuan izan joko edo dinamika hauetaz gozatuko duen lehena zu zeu izango zarela gehienetan. Ez zaitetz arduratu jarduera hauetatik irakaspenik ateratzeaz edo katedra sortzeaz. Gogoz bizi itzazu, eta kito.
- Joko orok ditu arauak. Jokoan jardun baino lehen, taldeari jokoa-ren arauak jakinarazi beharko dizkiozu, eta guztiak ados badaude, jarri zigorra arauak betetzen ez dituztenei. Jokoa ezinbesteko araua ikaskideen hitza errespetatzea da. Ezinezkoa litzateke elkarrekin hitz egitea denok batera egingo bagenu. Beste arau bat jokabide ona da: inork ez du inori eraso egiteko eskubiderik. Gainerako arauak lehenengo bileratik eta talde bakoitzarekin sortzen diren erabakietatik sortuko dira.
- Horrelako topaketetan “Zergatik?” izaten da gehien egiten den galdera. Neska-mutilek zerbait erantzuten duten guztietan, mahai-gaineratu zure zergatia. Erne, ordea!: hizkerak ez du inoiz gezurrik esaten. “Eta zergatik?” zakarki galdetzen baduzu, hizketaldia uxatuko duzu. Hizkera eziaz mintzatzen bazara, ordea, edo “Zergatik?” galderaren bidez hizketakideak esandakoa hobeto ulertzeko xehetasun gehiago jakin nahi duzula edo esandakoari interesgarri deritzozula adierazten baduzu, hizketaldia berehala hasiko da. Jarrera horrek hitz egiten duena hunkitzen du, eta

horrela, pertsona horrek bere pentsaera taxutzeko behar dituen hitzak aise aurkituko ditu.

- Jardun al duzu berriketan Interneten? Badago berriketaldi horietatik kopiatu nahi genukeen zerbait: nahierara sartu eta irteteko modua. Solaskideak nahi duenean parte hartzen du. Batzuetan, norberak hitz egitea baino interesgarriagoa izaten da beste hizketakideek hitz egiten dutenari erreparatzea. Tutik ere esan gabe, nork bere buruarekin hitz egiteko aukera izaten du. Begirunea erakutsi beti hitz egin nahi ez duenari.
- Ez dugu gaixotasunez mintzatu behar, bizitzaz eta osasunez baik. Osasunaren alde hezteko komunikazio-proposamen honen arrakasta edo porrota ebaluatzeko modu bat izan liteke. Txerta ezazu zeure burua gogaitasunaren, aharrausien, kopetilunen eta sermoien aurka. Hemen ez baitago haientzako lekurik.

IRRATI-SAIOA Material hau irrati lantzea erabakitzen baduzu, egitura bera erabiltzea proposatzen dizugu. Jarduera gehienak belarrien bidez “ikus” daitezke. Garrantzi handikoa da irrati-saio bakoitzerako gonbidatu bereziak izatea -hemen adierazitako adin bereko neska-mutilak-. Oraingo honetan, bost lagunekin lan egitea gomendatzen dizugu. Aukera honetaz balia zaitezke Bizitzaren Abenturaren entzule-kluba sortzeko, ipuindun irrati-bileretan parte har dezaten. Entzuleek bizitzari buruzko hizketaldi on batean parte hartzeko aukera izango dute, bai etxetik, bai autobusetik, telefonoz edo postaz.

SOLAS EGITEKO IRADOKIZUNAK

HAZTEKO IPUINAK



LAGUNEN ESKUA

BIZITZARAKO GAITASUNA

HARRE/MANAK IZATEA

LABURPENA *Nereak, neska itsu batek, ikusten duen guztia kontatzen du ipuin honetan. Bere lagunak nolakoak diren kontatzen du, eta elkarren antzekoak izan arren, gogokoagoak ditu haien arteko desberdintasunak antzekotasunak baino. Adiskideak eskuko atzamarrak bezalakoak direla dio Nereak: elkarrengandik desberdinak, baina elkarri lotuta. Elkarren antzekoak ez diren adiskideak izatea leiho ugari duen etxea edukitzea bezalaxe da, leiho bakoitzetik munduan gertatzen dena ikuspegi desberdinetatik ikusteko aukera baitago.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren, neska-mutilek gogokoen duten atzamarra aukeratuko dute. Eskaezu azal diezazutela zer egiten duten atzamar horrekin. Ondoren, esaiezu atzamar horren eri-mamian marraz dezatela bere aurpegia eta azpian idatz dezatela “NEU”. Berehalaxe, gainerako atzamarretan gogokoen dituzten lau pertsonak marraztu beharko dituzte. Ariketaren helburua ikasle bakoitzak pertsona horiek zergatik aukeratu dituen azaltzea da, eta baita pertsona bakoitzarengandik gehien gustatzen zaiona eta nazkatzen duena azaltzea ere, zergatiak adieraziz. Gero, eskaiezu haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aurki ditzatela. “Zer gertatuko litzateke guztiok berdinak izango bagina?” Galdera horrek lagun diezazuke saioa behar bezala bukatzen.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

UNTXIA BËTI ETA BËTI

AUTOËSTIMUA

NORBERAREKIKO BERIGUNEA

LABURPENA *Danik untxi-hortzak ditu eta ikaskideek adarra jotzen diote. Entrenatzaileak hortz-handia izatea ez dela bere errua azaltzen dio. Bestela izango litzateke hortzak garbituko ez balitu eta “bakailao” deituko baliote. Sudurluzea, txikia edo belarri-handia izatea ez dago gure esku. Txukuna izatea, ordea, bai.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren, hobeto ezagutuko dugu elkar. Bakoitzak bere aurpegia ispiluan ondo aztertu ondoren, gogokoen duen zatia aukeratuko du. Gero, txandaka, zati hori zergatik aukeratu duen azaldu beharko du. Ondoren, ariketa errepikatuko dute, baina oraingo honetan, gutxien gustatzen zaien zatia aukeratu beharko dute ikasleek, eta zergatik azaldu. Daniri gertatu zitzaion bezala, adarra jotzen dietenean bakoitzak sentitzen duenaz hitz egin ahal izango dute.

MATERIALAK Ispilu txiki bana.

SU TXIKIAN

AUTOESTIMUA

ERRONKEI AURRE EGITEA

LABURPENA *Inurri arin bat ez da inoiz jaguar motelena baino bizkorragoa izango. Baina, motela izateak ez du leloa izatea esan nahi, eta bizkorra izateak ez du argia izatea esan nahi. Nork bere abiadura dauka. Gizakien ulermenari antzeko zerbait gertatzen zaio. Batzuek lehenengo azalpenarekin nahikoa dute; beste batzuek, ordea, galdera asko egin behar izaten dute zerbait ulertzeko. Baina galdera gehiago egiteak ez du leloagoak garela esan nahi, Mikelek ipuin honetan kontatzen duen bezala.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren joka ezazu “ez zaitetz galdetzeko gogoarekin gera” jokoan. Gauzak hobeto ulertu nahi direnean galdetzea merezi duela argi eta garbi gelditu behar du, eta kezka eta beldurrak uxatu behar direla.

Ikasle bakoitzak noizbait norbaiti egin nahi izan dion baina egitera ausartu ez den galderan pentsatu beharko du. Paper batean idatziko du letra argiz eta ondoren, tolestu egingo du. Paperak bildu eta sar itzazu poltsa ilun batean. Ondoren, eskaini poltsa taldeari. Eska iezaiozu ikasle bati galdera bat ateratzeko eta irakurtzeko. Ondoren, nahi duenak eta erantzuna dakienak erantzun dezala. Normala da erantzuten zailak diren galderak sortzea, material hau probatzer-

koan gertatu zen bezala. Esate baterako, neskato batek hauxe gal-
detu zuen: “Zergatik banandu ziren gurasoak?” Errespetuzko, elkar-
tasunezko eta konfiantzazko giroa sortu behar da.

Adi! Inork ez du zertan jakin nork zer idatzi duen. Funtsezkoa da.

MATERIALAK Papera eta lapitz bana, eta poltsa ilun bat.

ERREMEDIIO BIKAINA

BIZITZARAKO GAITASUNAK

HARREMANAK IZATEA

LABURPENA *Elena gripeak jota dago eta, konturatu gabe, Josuren gainean eztul egiten du etengabe. Josu gizajoak ez daki nola aurre egin egoerari. Hamaika gauza bururatzen zaio hitz egitea erabakitzen duen arte, eta...erremedio bikaina! Uste baino errazagoa izan da.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzungo dugu eta ondoren, “jar zaitetz nire lekuan” jokoan jolastuko gara. Sei ikasle aukeratuko ditu-
gu. Bakoitzak ondorengo egoeretan egonez gero egingo lukeena esan beharko du:

1. egoera: Gizon batek kalean paper bat lurrera botako balu eta zuk ikusiko bazenu, zer esango zenioke?
2. egoera: Auzokoaren txakurrak zure etxeko atean kaka egingo balu, nola esango zenioke txakurraz gehiago arduratu behar duela auzokoari?
3. egoera: Jolas orduan, kafetegian, mutiko batek txanda-pasa egin-
go balizu, zer egingo zenuke?
4. egoera: Autobusean, aldameneko andrea zure sorbaldaren gain-
nean lo geratuko balitz, zer egingo zenuke?
5. egoera: Irakaslea oso haserre balego, bere onetik aterako balitz,
errieta egingo balizu eta “hutsaren hurrengoa zara” esango balizu,
zer egingo zenuke?
- 6.egora: Aldameneko ikaskideak oso usain txarra balu eta kiratsa
jasanezina balitzaizu, zer egingo zenuke?

Galdera bakoitzari erantzun ondoren, galde iezaiezu gainerako taldekideei zer deritzoten erantzun bakoitzari eta zergatik. Hemen sortuko da elkarrizketa.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

BIZITZEKO GOGOIA

DROGAK

TABAKOA

LABURPENA *Zer da bizitzan gogokoen duzuna? Mikeli galdera hori egin ziotenean, berehalaxe erantzun zuen: jatea. Galdera horrek, ordea, beste bat ekarri zuen, eta beste bat, eta beste bat... azkenean heldu zen arte: Erretzaile amorratua izatea gustatuko litzaizuke? Mikelek ez zuen ulertzen zergatik egiten zioten horrenbeste galdera. Ba al dakizu zein den jateak erretzearekin duen zerikusia?*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, sortu elkarrizketa ikasleei ondoko galderak eginez:

Zer da bizitzan gogokoen duzuna? (gauza bakarra)

Zein dira gogokoen duzuna egitearen alde onak eta txarrak?

Ondoren, egizu ariketa alderantziz:

Zer da bizitzan gutxien gustatzen zaizuena?

Zein dira gustuko ez duzuna egitearen alde onak eta txarrak?

Azkenean, entzun ezazu ipuina arretaz neska-mutilekin batera. Hitz egin Mikelek gogokoen duenaren, hau da, jatearen, alde on eta txarrei buruz. Pentsatu Mikeli gutxien gustatzen zaiona zer den. Bukatzeko, utz ezazu egiteko bat burutu gabe: ikasle bakoitzak bi nagusi erretzaile ezagunei galdetu beharko die erretzearen alde onak eta txarrak zein diren. Ondoren, beste saio batean, jasotako erantzunen berri emango dute eta beraientzat erretzearen alde onak eta txarrak zein diren azalduko dituzte.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

KORRIKA EGIN ETA KONTATZEA

BIZITZARAKO GAITASUNAK

TENTSIORA ERABILTZEA

LABURPENA *Pertsona bakoitzari dagokio bere gorputza nork ukitzen duen edo nork ukitzen ez duen erabakitzeko eskubidea. Horregatik sentitu zen Elena oso gaizki gizon ezezagun batek ipurdia ukitu zionean. Ikaratu egin zen eta negarrari eman zion. Zorionez, bi gauza garrantzitsu egin zituen: korrika egin ihes egiteko eta kontatu laguntza eskatzeko.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun ipuina ikasgelan eta kontuan hartu zer esaten duen taldeak eta nola erantzuten duen entzuten duen bitartean. Ondoren, galde iezaiezu zer iruditu zaien eta saia zaitetz erantzunen zergatia aztertzen. Eskaiezu eman ditzatela kontakizun honetako pertsonaiei buruzko iritziak: Zer deritzote gizon ezezagunari? Zer deritzote Elenak egindakoari? Zer deritzote Elenaren amari? Gogora ezazu bi belarri dituzula gauza asko entzuteko eta aho bakarra gutxi mintzatzeko. Antzeko pasadizorik ezagutzen badute, eskaiezu kontatzeko. Bukatzeko, azken galdera bat: Zer egingo zenukeen Elena izan bazina?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

KOMUNAREN HONDAMENA

AUTOESTIMUA

ERRONKCI AURRE EGITEA

LABURPENA *Bizitzan badago kiratsa darien gauza ugari: alferkeria, nagikeria, konformismoa. Badago, ordea, usain zoragarria duten beste gauza asko, esate baterako, Nereari gertatu zitzaiona ikasle guztiak eskolako komunak garbi izateko duten eskubidea aldarrikatu zuenean. Ipuin honek zoragarri usaintzen du.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina, eta ondoren, antolatatu taldea bikoteka. Eskola ikuskatzera irtengo dira, papera eta lapitza eskuetan dituztela. Konpondu beharrekoak idatzi beharko dituzte, baita eskolan ez dituzten eta eduki nahiko lituzketen gauzak ere.

Garbi al daude komunak? Badabil telefono publikoa? Eta iturria? Ez dagoela? Zer egin genezake iturri bat lortzeko? Norekin hitz egin genezake hori konpontzeko? Ikasgelan bero handia egiten duela eta ez dugula jasaten? Zer egin dezakegu? Zuhaitz gehiago eduki nahi genituzkeela eta horma batzuetan hormirudiak egin? Gogoratu saio honen helburua konpondu beharrekoak ez ezik, eduki nahi luketena ere idaztea dela.

Ondoren, egindako zerrendak elkarri erakutsiko dizkiote, eta amets horiek egia bihur daitezen eta beharrak ase daitezen antolatzeko moduz mintzatuko dira.

MATERIALAK Papera eta lapitza.

ESATEN DUTENA ESAN ARREN

BIZITZARAKO GAITASUNAK

ERABAKIAK HARTZEA

LABURPENA *Mikelii ez zaio axola ingurukoek berari buruz esaten dutena. Zeramika-tailerrean egon nahi du, eta kito. Lagunek erabaki hori hartzeagatik gaitzesten dute, Mikelen eskuak zer gauza ederrak egiten dituzten ohartzen diren arte. Mikelek lagunei lagunduko die haiek duten asmo batean, baldintza batekin ordea: lagunek barkamena eskatu beharko diote.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, prestatu dena txarteletan jokatzeko. Txartel bakoitzean aditz bana idatzi beharko duzu: oihu egidazu, irri egidazu, ezikusiarrena egidazu, utzidazu, arrenka eska iezadazu, iruzur egidazu, seinala nazazu... Ekintzak errepika ditzakezu, eta, nahi izanez gero, gehiago idatz ditzakezu.

Talde osoak zutik egon beharko du, biribil handi baten barruan, ohi bezala. Gero, sar zaitetz barruan eta itsats ezazu txartel bat ikasle bakoitzaren bekokian. Inork ez dio inori esan behar bekokian duen hitza zein den. Zuk esaten duzunean, ikasle guztiak ikasgelatik bueltaka hasiko dira, eta, topo egin ahala, topatutako pertsonaren bekokiko txartelak dioena egin beharko dute.

5 edo 7 minutuz itxaron. Inork ez du oraindik bekokian duen txartela kendu behar. Ondoren, eskaiezu kontu dezatela zer sentitu duten eta zergatik. Hitz egin ondoren soilik ken liteke txartela bekokitik eta idatzita dagoena ikusi.

Nori gustatuko zitzaiokeen ezentzunarena egitea, eta zergatik?

Entzun ondoren Mikelen ipuina. Galdetu zein zen Mikelek zuen txartela eta zer deritzoten egoerari.

Bukatu saioa ondorengoari buruz mintza daitezela eskatuz: Noiz gustatuko zitzaiekeen ezentzunarena egitea norbaitek esandakoa ez entzuteko, eta zergatik? Nola gertatu zen? Konta ezazue...

MATERIALAK 8 x 4 zm-ko txartel itsasgarri bana.

EGUNEROKO DUTXA

OHITURA OSASUNGARRIAK

HIGIENÇA

LABURPENA *Elenari eta bere lagunei asko gustatzen zaie Andres. Oso gogokoak dituzte haren ile horaila eta begi urdinak. Baina, egun batetik bestera, akabo, ez dute Andre gogoko. Andres agertzen den bakoitzean, neska guztiek alde egiten dute. Ez dago inolako zalantzarik: eguneroko dutxa pagotxa da. Osasungarria izateaz gainera, kiratsa uxatu eta garai bateko maiteak zein maite berriak erakartzen ditu.*

SAIOAREN GARAPENA Lehenengo eta behin, entzun arretaz ipuina eta ondoren, hari buruz hitz egin. Ipuinak elkarrizketa sortuko du berehala. Hala eta guztiz ere, hona hemen zenbait galdera lagungarri:

Ezagutzen al dute antzeko pasadizorik? Zer gertatu zen? Bikoteka, dutxatzeko duten moduaz hitz egin: nondik hasten diren, non bukatzen duten, norekin dutxatzen diren, zenbat aldiz egiten duten, zer ordutan dutxatzen diren, zenbat irauten duen... Gero, pertsona bakoitzak taldeari esan beharko dio zer iruditu zaion deigarriena entzundako pasadizo guzietatik. Saioa bukatzeko, galdetu ikasleei: Zer egingo zenukete ikaskide batek usain txarra balu, Andresi, ipuineko mutikoari gertatu den bezala?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

DEÑETIK PIXKA BAT

OHITURA OSASUNGARRIAK

ELIKADURA

LABURPENA *Mikeli ez zaizkio barazkiak gustatzen. Gogokoen duen jakia haragi errea da. Aste Santuko oporraldian izeba Mirenen etxera doa eta aurrean barazki platerkada ikusten duenean, handik hanka egin nahi du. Hamaika aitzakia asmatzen du izebak prestatutakoa ez jateko, lehengusinak salatzen duen arte. Egun hartatik aurrera, umorez, sormenez eta patxadaz jarduten dute senideek Mikelek bazka-lorduan urdaila betetzeaz gainera, menua ere zabal dezan.*

SAIOAREN GARAPENA* Antola ezazu otordu bat gurasoen laguntzarekin. Eskaeizu seme-alabek oso gustukoa duten jaki bat presta dezatela, eta ziur izan daitezela pertsona batzuei deigarri gertatuko zaiela (agian jaki hori dastatzeko aukerarik izan ez dutelako)⁸. Horrela, eskolan proba egiteko egun eta ordu egokienak aukeratzen dira. Helburua ekitaldi erakargarria antolatzea da, guztiek gauza bitxiak probatzeko gogoia izan dezaten. Interesgarria litzateke jarduera bideoan grabatzea, gertatutakoari buruz taldearekin hitz egin ahal izateko.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

LOTURAK ETA EDALONTZIAK

AUTOESTIMUA

NORBERAREKIKO BEGIRUNEA

LABURPENA *Eguneroko bizitzan badira erraz apurtzen diren gauzak, batez ere, beirazkoak, toskazkoak edo portzelanazkoak. Gauzak apurtzen direnean, sendotu edo ahuldu egiten den zerbait agertzen da aldi berean: konfiantza. Batzuetan, edalontzi batek loturak sorrazten ditu, Elenak kontaktzen duen bezala.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta ondoren, sortu elkarrizketa rol aldaketa ekar lezaketen ondorengo egoerak erabiliz:

* Gurasoentzat ere bai.

8. Beste herrialde batzuetako janariak izan daitezke.

Gertatu al zaizu inoiz Elenari edalontziekin gertatu zaiona?

Elenaren ama aita izan balitz, zer gertatuko zatekeen?

Elenaren ama zure ama balitz, zer gertatuko zatekeen?

Zu Elenaren aita edo ama bazina, zer egingo zenukeen?

Antzekorik gertatuz gero, zer gustatuko zitzazukeen aitak edo amak egitea?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

KOLTXONETA HAGALARIAK

BIZITZARAKO GAITASUNAK

TENTSIOA ERABILTZEA

LABURPENA *Ingeleseko azterketak oso urduri jarri ditu Mikel eta ikaskideak. Zorionez, azterketa egin baino lehen, kirol eskola dute Juan Karlos maisuarekin. Maisua ikasleen urduritasunaz jabetu da eta ikasleak lasaitzeko ariketa bat proposatu du. Hari esker, horrenbeste behar zuten lasaitasuna lortu dute.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun ipuina segidan adieraziko den ariketa egin ondoren. Eskaeizu ikasleei bikoteka elkartzeko. Bikote bati olio usaintsutan bustitako kotoi-puska bat emango diozu. Gero, lurrean esertzeko eta zapatak kentzeko esango diezu. Pertsona bakoitzak behatzetan masaje bat eman eta hartuko du olio usaintsutan bustitako kotoi-puskarekin. Barre egin eta goza dezatela. Ondoren, galde iezaiezu lasaitzeko beste teknika batzuk ezagutzen ote dituzten. Ahal baduzu, praktikatu haiek proposatutakoren bat edo bi. Saioa bukatzeko, entzun Mikelen ipuina eta galdetu noiz izan duten Juan Karlos bezalako maisu baten premia.

MATERIALAK Kotoia eta olio usaintsua.

AULKI HUTSA

AUTOESTIMUA

NORBERAREKIKO BEGIRUNEA

LABURPENA *Sudur puntatik haratago mundua dago. Munduan gauza asko gertatzen dira, baina ez gara beti konturatzen. Nereari apendizitis batek ikusarazi zion garrantzitsua zela pertsona askorentzat.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren, esaiezu ikasleei hiru laguneko taldetan antolatzeko. Pertsona bakoitzak, apendizitisa izanez gero, ospitalean bisita egingo lioketen pertsonen izenak idatziko ditu paper batean. Taldeko hiru lagunek hitz-zerrenda prest dutenean, idatzitakoa elkarri erakutsiko diote, bisitaren zergatiak eta bisitak nolakoak izango liratekeen kontatzeko.

Taldeak ausaz osatzea gomendatzen dugu.

Galdetu taldean gaixorik edo ospitalean izan den lagunik ote dagoen. Eskaiezu nola sentitu ziren kontatzeko, eta zein izan ziren hobeto sentitzen lagundu zieten gauzak.

MATERIALAK Lapitza eta papera.

ZABALDU ZURE BESOAK

OHITURA OSASUNGARRIAK

ELIKADURA

LABURPENA *Mikelek etengabe jaten du: urduri dagoenean, pozik dagoenean, betilun dagoenean, aspertuta dagoenean... Horregatik dago hain gizen eta, sendagilearen iritziz, argaldu egin behar du. Amak gose den bakoitzean norbait besarkatzea proposatzen dio. Amak besarkadaz elikatzen garenean gutxiago jaten dugula entzun du. Dibertigarria da eta oso interesgarria ere bai...*

SAIOAREN GARAPENA Entzun ezazue ipuina. Ondoren, prestatu besarkada-tailer txikitxo bat egiteko behar den guztia. Segidan, ikasle bakoitzak besarkada batek zertarako balio duen azaldu beharko du. Gutxiago jateko balio ote? Eguna argituko du eta ikusiko dugu.

Taldekide guztiek zutik egon beharko dute. Botaiezazkiezu plastikozko baloiak eta eskaiezu ez ditzatela lurrera erortzen utz. Berotzen

direnean, ikasle-kopuru bereko bi talde handi osatu behar dituzte. Guztiek besarkada batez elkartu beharko dute. Diametro txikiena duen taldeak irabaziko du. Zuk neurtu ondoren, epaia emango duzu.

Bukatzeko, eskaiezu bikoteka antolatzeko. Ikasle bakoitzak bizkarrean dagokion txartela esekiko du, esaldia buruz behera duela. Bikoteak elkar besarkatuko du, estu-estu, bikotekidearen bizkarrean dagoen esaldia irakurri eta belarrira esateko moduan.

Jarduera txalotu, eta eser zaitezte besarkadaren ahalmen sendagarriaz hitz egiteko. Gogora ezazu mina, tristura eta kezka sendatzeko balio dutela besarkadek. Agian horregatik, gehiegi jateari uzteko balio dute. Sentipen horiek laguntzen baitute jateari uzten, baita norbaitek erretzeari edo edari alkoholduinak edateari utzi nahi dionean ere.

MATERIALAK Plastikozko hiru baloi handi eta arin, neurketa-zinta, 12 x12 cm-ko txartelak, haria eta esaldi labur lausengaria.

LETRATXOA

AUTOESTIMUA

ERRONKEI AURRE EGITEA

LABURPENA *Elena beldur da. Gurasoei matematikan nota txarrak atera dituela esan behar die. “G”, “gutxiegi” atera duen lehen aldia da eta ez daki nola jokatu behar duen. Tartetxo bat igaro ondoren, gurasoei kontatzera ausartzen da. Harriduraz ohartzen da “g” letrarekin “gutxiegi” ez ezik, “gaitua” ere idazten dela.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta ondoren, erabil itzazu galdera hauek elkarrizketa sortzeko:

Zer deritzozue Elenaren aitari? Zergatik?

Nota txarrak atera al duzu inoiz? Zer gertatu zitzaizun?

Nori eskatzen diozu laguntza eskolan zerbait ulertzen ez duzunean? Zergatik?

Litekeena da norbaitek laguntzeko inguruan inor ez izatea. Ondorengo galdetu: Zer egingo luke orduan?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

RONIK GABEKO MAHASPASA-IZOZKIA

DROGAK

ALKOHOLA

LABURPENA *Neska-mutilenganako maitasuna adierazi nahi izan zuen hiri baten ipuina dugu hau. Mikel, arratsalde batez, erosi ohi zuen rondun mahaspasa-izozkia eroatera joan zen; ez zuen aurkitu ordea. Hiriko denda eta supermerkatuetan ibili ondoren, ez zuen inon ere aurkitu. Ertzaintzak rondun mahaspasa-izozkia dendetatik kentzea erabaki omen zuen. Mikelek izozkia alderantziz, hau da, ronik gabeko mahaspasa-izozkia eskatu beste biderik ez dauka. Haurrak maite dituen hiri batek adingabekoei likorea saltzea galarazi behar du.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, neska-mutilei galdetuko diegu adingabekoak izateagatik egin ezin dituzten gauzetatik zer egitea gustatuko litzaiekeen. Galdera ipuinaren atarikoa izango da. Segidan, ipuina entzungo dugu eta ondorengo galderen eskutik solas egingo dugu:

Mikeli rona gustatzen ote zaio eta ez da konturatu?

Ron-zurrutada bat probatzea gustatuko litzaizueke? Zergatik?

Inoiz garagardo, ardo, pattar edo ron-zurrutadarik eskaini al dizuete? Zer egin zenuten edo zer egingo zenukete hala gertatuz gero? Zergatik?

Badakizue non saltzen zaien hurrei edari alkoholunik?

Rondun mahaspasa-izozkiak saltokietatik kentzea hurrek alkoholik ez edateko neurria izan zen. Erabaki hoberik bururatzen al zaizue horrelakorik gerta ez dadin?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

LABURPENA *Irakurtzea oso gustukao izateko ez dago jakin-mina piztea baino gauza hoberik. Nereak bere neba Daniri ipuin baten zati bat kontatzen dio eta bukatu gabe uzten du. Dani jakiteko irrikatzen geratzen da. Jakingura asetzearren, azal gorridun liburu hura, Nerea irakurtzen hasi den hura, kosta hala kosta eskuratzen du, eta pixkanaka haren letrak irensten ditu. Dani ate nagusitik sartzen da baztertzen zuen liburuen mundu zoragarria. Gogo biziarekin bakarrik sarzaitezke mundu liluragarri horretan. Hori poza halako tranpa erakargarrian erortzea!!*

SAIOAREN GARAPENA Lehenengo, entzun arretaz ipuina eta ondoren, tartetxo bat igaro berriketan: Inoiz izan al duzue ezer irakurtzeko jakin-minik? Zer irakurtzeko? Zergatik? Zuk irakurri dituzuen liburuetatik, zein izan dira jasanezinak eta zein atseginak?

Berriketak ez du gehiegi iraun behar, irakurtzeari ekingo diogu eta. Ikasgelara hainbat aldizkari, liburu edo ipuin eraman beharko duzu. Tartetxo bat eman iezaezu testu labor bat bilatzeko, interesgarri deritzotena, irakurtzean norbaiti kontatzeko gogoia sorrarazten duen horietakoa. Primeran legoke liburutegira joan eta saguak bezala ibiltzea.

Itzultzen direnean, bakoitzak ikaskideei kontatu beharko die aurkitutakoa eta zergatik aukeratu duen.

Saioa bukatu, ondorengo galderari buruzko ideiak edo proposamenak sorraraziz: Bururatzen al zaizue irakurtzea gustatzen ez zaion norbaiti irakurtzeko gogoia pizteko beste ideiarik?

MATERIALAK Aldizkariak, liburuak eta ipuinak.

LABURPENA *Automobilek bizkor eramaten gaituzte. Nora ordea? Galdera ona: litekeena da lanera izatea, baina baita ingurumena kutsatzera edo loditzera ere. Autoan joatea erabakitzen dutenak guxtiago ibiltzen dira eta gehiago loditzen dira. Bizikletan edo oinez joaten direnak, berriz, sasoi onean daude. Mikelek horri buruz pentsatzen duen bakoitzean, autoan ez joatea erabakitzen du. Argaldu behar du eta bizikletan ibiltzea erabaki du. Erabakia zoritzarrekoa izan da ordea, kamioi batek harrapatu baitu ia-ia. Gure hirietan autoak besterik ez dira kontuan hartzen eta oinezkoak, bizikleta zaleak edo elbarriak alde batera uzten dira.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina. Mintza zaitezte gaiari buruz eta ondoren, irten zaitezte kalera, hiru taldetan antolatuz⁹. Hiriaren behatoki bat sortuko dugu. Hasteko, eskolatik hurbil dagoen etorbide batean kokatuko gara kontu handiz. Talde bakoitzari arretaz behatzeko kontuan hartu beharreko galderak emango dizkiozu.

1. taldea: Zenbat lagun dabilta bizikletan? Zenbat dira emakume eta zenbat gizon? Zein adinetakoak dira? Zer arrisku ikusi dute?

2. taldea: Arretaz aztertu espaloiak eta neur ezazue haien zabalera. Zenbat lagun ibiltzen da hortik? Zer deritzozue?

3. taldea: Zenbat auto igarotzen da minutuko? Zein da daramaten lastertasuna? Nola jokutzen dute semaforoetan? Begiratu klaxona erabiltzen duten eta noiz egiten duten. Nolako gasak botatzen dituzte?

Emaiezu tartetxo bat hau guztia egiteko. Gero esan elkarri azaltzeko bildutako datuak eta guztien artean antola dezatela etorbidearen ingurunea hobetzeko plana. Prest dutenean, gonbita egiozu udaleko zirkulazio arduradunari ikasleen proposamenak entzuteko eta lortutako datuak aztertzeko. Lan hau saio bat baino gehiagotan egin daiteke, eta etxeko lanak ere bidal daitezke.

MATERIALAK Lapitza eta papera.

9. Bi nagusi beharko dituzu taldeekin kalera joateko.

LABURPENA *Jose 8 urteko mutikoa da, etxean bakarrik eta giltzapean egoten dena, gurasoek lan egiten duten bitartean. Gainera, berria da auzoan eta ez du inor ezagutzen. Behin, leihotik, Nerea ikusten du kalean eta bere burua aurkezten du. Orduz geroztik, gauzak aldatzen hasten dira. Badaude segurtasunik eza sorrarazten duten segurtasun-neurriak.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren, eman iezazkiezu neska-mutilei lapitzak eta papera. “STOP” jokoan jokatuko dute. Zuk galdera bat egiten diezu, erantzuteko 5 segundo eman eta ondoren, “STOP” oihukatzen duzu. Orduan, denek lapitza utzi beharko dute eta erantzun dutena irakurri.

Honatz galderak:

1. Idatz ezazue Jose bezala bakarrik bazeundete eta laguntzarik behar izango bazenute dei egingo zenioketen auzokoaren izena.
2. Auzoko hori aurkituko ez bazenute, idatz ezazue beste auzoko baten izena eta telefonoa.
3. Ba al dakizue zuen aldameneko, gaineko edo beheko auzokoen izenik?
4. Idatz ezazue sekula ere deituko ez zenioketen auzokoaren izena.

Auzoko zenbat lagunekin hitz egiten duzue? Zergatik?

Zer deritzozue auzoan lagunak edo ezagunak izateari?

Garrantzitsua da galderen artean tartea uztea, erantzunen zergatiak elkarri azal diezazkieten. Baina, kontuz! Ez dadila joko hoztu. Hasieratik erakargarria izateko, has zaitez gaiarekin zerikusirik ez duten galderekin. Esaterako: Zein da Madagaskarreko hiriburua? Edo beste hau: Zein koloretakoa zen Santiagoren zaldi zuria? Galdera hoberik bururatuko zaizula sinetsita gaude.

MATERIALAK Lapitza eta papera.

LABURPENA *Badaude gorde behar diren sekretuak eta gorde behar ez direnak. Zein gorde, zein kontatu? Danik ez daki zer egin. Andresi bere sekretua ez ziola inori kontatuko hitz eman zion. Norbaiti kontatzeko irrikan dago, baina ez du lagunaren konfiantza galdu nahi. Ez zuen inoiz pentsatuko horren zaila zenik. Aitonagatik izan ez balitz, oraindik zalantzan egongo zatekeen.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, “telefono hondatuan” jolastuko zarete:

Biribileko lehenengo pertsonari ondorengo esaldia esango diot belarrira: “Andresek Daniri Elena igeltsu-meatze batean egon dela esan dio”. Pertsona horrek beste pertsona bati kontatuko dio belarrira, azkenak beste bati, eta horrela, bata bestearen atzetik. Azkenak entzun duena esan beharko du ozen.

Tartea eman iezaiezu barre egiteko, normala baita esaldia erabat aldatzea. Gero, jar ezazu taldea alderantziz, kontrako norabidean, bakoitzak ulertu duena berriro esan dezan, hasierako esaldira heldu arte. Galdetu nola sentituko liratekeen Elena izango balira.

Horri buruz elkarrekin hitz egin ondoren, entzun ezazue ipuina.

Ipuina entzun ondoren, ipuinarekin lotu dezakezue telefonoaren jokia. Seguruenez, Danik lagunaren sekretua kontatu balu, sekretua esamesa bihurtuko zatekeen.

Solas egiten jarraitzeko galderak: Ba al duzue zuen sekretuak kontatzeko Dani bezalako lagunik? Zergatik duzu konfiantza lagunarengan? Nolakoak zarete zuen lagunaren sekretuak gordetzen? Ba al duzue honi buruzko pasadizorik? Lagunek zuengan konfiantzarik izan al dezakete? Zergatik?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

LABURPENA *Gezurra badirudi ere, egia da. Bila ezazu “garbitu” aditza sinonimo hiztegi batean. Hainbat aukeraren artean, “kendu”, “ebatsi”, “erbesteratu”, “baztertu”, “deuseztatu” eta “suntsitu” bezalako aditzak aurkituko dituzu. Horregatik, ipuin honetan, baserriko lurrak garbitzeko proposamenak beldurtu egin zuen Armando jauna. Inguruko baserriar batzuek hala egin zuten, eta bertoko fauna eta flora suntsitu zituzten. Maisuak Josu eta lagunei kontatzen die zergatik nahiago duen bere baserria zikin eta nahasia izatea.*

SAIOAREN GARAPENA Saio honek bi une dauzka:

Ipuina entzun ondoren, esaeizu neska-mutilei solas egiteko. Ondorengo galdera egin: Zuen ustez, zergatik ari dira ipuin honetan garbitasunaren arriskuaz? Esan iezaiozu ikasle bati hiztegian “garbitu” aditza bilatzeko. Galdetu ikasleei ea ezagutzen duten garbitasuna arriskutsua gerta daitekeen beste adibiderik.

Ondoren, mintza zaitetze “ordenarik ezaren garrantziaz”. Galdegin ikasleei haien ustez zertan den entzun duten ipuinaren esamoldea.

Pertsona batzuek ez dute onartzen ordenarik eza garrantzitsua denik. Ez da kontzeptu ulerterraza hiri batean bizi garenontzat eta naturaren logika ezagutzen ez dugunontzat. Hori erakusten diguten adibideak bilatu behar ditugu, kontrasteagatik bederen: ibai makur eta zubi zuzen baten argazkia erakustea; oihan kaotiko bat laborantza zuzen batekin alderatzea... Baliabide horiek aipatu dugun kontzeptura hurbil gaitzakete.

Gogora ezazu helburua ez dela inor konbentzitzea, baizik eta beste pertsona baten ikuspegia kontuan hartzea edo pentsatzen duenaren zergatiak ulertzea. Informazio hau baliagarri gertatuko zaie neska-mutileen gurasoei edo biologia irakasleari. Esaterako, mendian zehar ibiltzeko txangoak antola ditzakete. Naturalago eta artifizialtasunik gabe hazten laguntzen diguten nahitaezko kontzeptuak dira.

Hurrengo saioan, landu pixka bat gehiago ordenarik ezaren garrantziaren kontzeptua “zirriborratuan” jokatzuz.

Margotu arbelean 15 letradun taula bat, honela:

B	O	S	E	A
T	I	N	T	O
E	F	E	R	U

Hiru minutu izango dituzte koadro horretan dauden hitz-kopuru gehienak aurkitzeko. Hitzak aurkitzen dituzten heinean, paperean idatziko dituzte. Ondorengo arauak izan behar dira kontuan:

- Hiru letra baino gutxiago duten hitzak baztertu behar dira.
- Siglak, erdarakadak eta izen bereziak baztertu behar dira.
- Garrantzitsuena: ondoz ondoko letrak erabiliz sortu behar dira hitzak. Ezin da laukirik huts egin.
- Hitz berean ezin da letra bera bi aldiz erabili, lauki desberdinetan agertzen ez badira behintzat.
- Hitz gehienak aurkitzen dituenak irabaziko du, baina batez ere, inork ikusi ez dituenak aurkitzen dituen horrek.
- Barruko letrak nahierara aukera daitezke.

Hiru minutuak igaro ondoren, idazteari utziko diote eta bakoitzak bere zerrenda irakurri beharko du. Aurkitutako hitzak esan ahala, gainerako ikasleek aurkitu diren hitzak zirriborratu beharko dituzte.

Oso ariketa interesgarria da, agerian ez dagoena ikusten ikasteko eta marra zuzenaz bestelakoak diren gauzak ordenatzeko beste modu batzuk ulertzeko. Ordenarik ezak badu bere ordena. Gauza bakoitzaren logika aurkitzea da helburua.

MATERIALAK Sinonimoen hiztegia, papera eta lapitza.

LABURPENA *Badago oso konponbide garbia zaramaren arazoa konpontzeko: zaramarik ez sortzea. Gure erosketen truke ordaintzen dugun diruaren %10-20a zaramara zuzenean joan dena ordaintzen gastatzen dugu. Ipuin honek kontatzen du supermerkatu burutsu batek erosketak otzara batekin egiteko aspaldiko ohitura modan jarri zuela. Zaramak gutxitzen laguntzeko modu erraza, produktu batzuk plastiko batez baino gehiagoz estaltzen baitituzte eta sarri askotan, kutxa batez, batzuetan hori ere plastifikatua. Eta biribiltzeko, produktua etxera eramateko beste poltsa bat ematen digute.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun ondoren, esaiezu eskua altxatzeko erosketak egitera joaten direnek eta salgaiak etxera non eraman ez dutenek.

Ez utzi taldeari otzara ikusten. Eskuak jaisten dituztenean, esaiezu 1etik 40ra arteko zenbaki bat esateko. Hori egin baino lehen, paper batean zenbaki bat idatzi beharko duzu, ondoren erakusteko. Paperean idatzi duzun zenbakia asmatzen duenari otzara emango diozu eta eskolako jolastokitik otzara besoan daramala ibiltzeko eskatuko diozu.

Ibilaldia bukatzen duenean, esaiezu gainerakoei txalo egin diezaiotela, eta etorri berriari galde iezaiozu nola sentitu den. Ez ahaztu haren erantzunaren zergatiak aurkitu behar dituzula. Gainerakoek hautatuak izan balira zer sentituko zuten adierazi beharko dute.

Saioa bukatzeko, esaiezu idazteko egunero zarama gutxiago -batez ere hondakin plastikoak- sortzeko hautabideak. Baldintza bakarra hautabideak eurek egiteko modukoak izatea da. Egingarriak izan daitezela, alegia.

MATERIALAK Otzara bat.

SOLAS EGITEKO IRADOKIZUNAK

HAZTEN JARRAITZEKO IPUINAK



LEHENENGO ETA AZKENA

DROGAK

TABAKOA

LABURPENA *Mikelen etxean ez dago inor. Bakarrik dagoenez, Daniri deitzen dio. Mikel eta Dani bainugelan sartzen dira eta Mikelek erretzeari ekiten dio. Mikelek horrenbeste ez tul egiten duenez gero, bere bizitza osoan ez duela zigarrorik piztuko dio. Danik, berriz, bere teoria sendotzen du: ez zuen zigarrorik probatu behar erretzea gus-tuko ez zuela izango jakiteko. Probatu edo ez, hortxe dago koska.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, prestatu dena bakarka jokatzeko. Eraman ikasgelara karta-sorta eta jarri ikasle bakoitzaren mahaiaren gainean karta estali bat. Karta guztiak bana-tu dituzunean, esaeizu kartak erakusteko. Batekoak dituzten horiek talde bat osatuko dute, eta 2 minutu izango dituzte ondorengo gal-derari erantzuteko (gainerako ikasleek ez dute jakin behar zein den):

Zer egingo zenukete bihar gurasoek edo senideek etxean egun oso bat, gaua barne, bakarrik utziko bazintzute? Orduz ordu zehaztu: hamarretan hauxe egingo nuke, hamaiketan hauxe egingo nuke... Zer prestatuko zenukete egun horretarako?

Pentsatutakoa gainerako ikaskideei jakinaraziko diete. Guztiek ent-zun ondoren, galdetu: Zuetariko nori gustatuko litzaieke egun horretan etxe horretara joatea? Zergatik? Nori ez litzaieke gustatuko hara joatea? Zergatik? Norbaitek zerbait gehitu nahi al du egun hori dibertigarriago izan dadin? Sortu elkarrizketa. Entzun arretaz ikasleek esaten dutena eta saia zaitetz iruzkinak egiten. Kontuz! Ez ezazu harri-durarik agertu ikasleek proposatzen dutena zentzugabea iruditzen bazaizu.

Bukatzeko, entzun arretaz Mikelen eta Daniren ipuina. Ondoren, gal-detu haiek antzekorik egin duten, edo egitea gustatuko litzaiekeen, eta hala bada, zergatik. Solas egin ikasleek protagonisten jokabide-az pentsatzen dutenari buruz.

MATERIALAK Kartak.

LABURPENA *Atsedetik onena eta osasungarriena ez da deus ere ez egitea, zerbait egitea baizik. Elenak aste nekagarria izan du eta asteburuan atsedeen hartzeko, ezer ez egitea erabaki du. Lagunek eta gurasoek egindako gonbidapenak atzera botatzen ditu eta egun osoa ematen du lo egiten eta telebista ikusten. Ez du ezer egiteko gogorik. Arratsaldea bukatzean, lehen baino askoz ere nekatuago dagoela sentitzen du.*

Ezer ez egitean edo ez mugitzean oinarritzen diren atsedeen-propo-samenak uste baino nekagarriagoak izaten dira.

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, “estatua” jokoa-jokatuko dugu.

Esaeizu zutik jartzeko eta gelatik ibiltzen hasteko. Zuk “estatua” esaten duzunean, ikasleek geldirik, izoztuta geratu beharko dute, ezer egin gabe. Horrela utziko dituzu ahalik eta denbora gehien. Helburua leher eginda bukatzea da. Estatuak desizoztu eta berriro izozteari ekin. Behin eta berriz. Helburua ahalik eta denbora gehien geldirik egotea da.

Galdetu ikasleei: Zer sentitzen dugu deus ere egiten ez dugunean?

Zorionak eman iezazkiezu eta ondoren, guztiak eserita, Elenaren ipuina entzungo duzue. Ipuina bukatu ondoren, sortu elkarrizketa:

Zer deritzozue Elenaren jokabideari?

Galdetu Elena bezain nekatuta daudenean zer egiten duten atsedeen hartzeko. Erantzunez jardutean, ez ahaztu estatuaren jokoa aipatzea noizean behin.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

LABURPENA *Bizitzan lehen aldiz, Josuri burua hutsik gelditu zaio azterketa batean. Orria zuria du eta arras kezkatuta dago. Berak, beti gelako onena izan denak, ez die gurasoei eta irakasleei huts egin nahi. Nota txarrik ez ateratzeko, Elenaren azterketa kopiatzen du. Hala eta guztiz ere, Elena ez dator bat bere erabakiarekin, eta Josuk ondorioei aurre egin beharko die. Ezin hobea izatea ezinezkoa da, zorionez.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, aztertu ikasle-en gaitasunak. Gogora ezazu gizakiok ez garela dena egiteko trebe, baina guztiok garela zerbait egiteko gai. Ondorengo jarduerak elkarren segidakoak izango dira, behaketa-lasterketa bat bailitzan. Lehiakortasun-giroa lortzen baduzu, jarduera erakargarriagoa gertatuko zaie ikasleei.

Jarri musika klasikoa. Guztiek dantzatu beharko dute musika klasikoaren erritmoan. Helburua balleterako duten trebetasuna neurtzea da. Ondoren, esaiezu esertzeko eta hautatu duzun hizkuntzan idatzita dagoen txartelak esaten duena itzultzen saiatzeko. Gero, emaezu paper bat hegazkin aerodinamiko bat egiteko. Ondoren, idatzi arbelean zenbaki bat eta esaiezu kalkula dezatela zenbaki horren erro karratua. Zorionak eman taldeari jarreragatik eta galdetu nola sentitu diren ariketak egin dituzten bitartean.

Gero, entzun ezazue arreta handiz “Ezin hobea ezinezko” izeneko ipuina. Esaiezu hari buruzko iritziak emateko: Zer deritzote Josuren jokabideari? Zer deritzote Elenaren jokabideari?

Bukatzeko, esaiezu orri batean idazteko zertan diren trebe eta zertan diren trakets, eta emaezu denbora idatzitakoa elkarri azaltzeko.

MATERIALAK Musika klasikoa balleta dantzatzeko; errusieraz, txineraz edota edozein hizkuntzaz idatzitako paragrafo bat, txartel batean idatziko dena; tolesteko orriak; idazteko orriak.

LABURPENA *Ikasketak behar bezala egiteko ez da beharrezkoa irakasleak esaten duena hitzez hitz hartzea. Edozein sendagai hartzeko, ordea, sendagileak esandakoari dagokionean, behintzat, ezinbestekoa da agindutakoa hitzez hitz betetzea. Horrela ez egiteak kalte egin diezaioke gura osasunari. Danik jakin badaki. Bere amigdalitisak okerrera egin zuen sendagileak agindutako antibiotikoa behar bezala ez hartzeagatik.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun aurretik, “Simonek hauxe dio” jokoan jolastuko zarete. Jarri biribil batean, zutik, eta Simonek esaten duena bete beharko dute ikasleek. Emaiozu erritmoa eta zirrara jokoari. Simonek guztiok eskuineko eskua bizkarrean jartzeko dio. Simonek inork arnasarik ez hartzeko dio. Simonek guztiok arnasa hartzeko dio. Simonek guztiok lurrean etzateko dio. Jarri zutik.

Biribiletik irtengo dira zutik jarri zirenak. “Simonek hauxe dio” esaten denean bakarrik obeditzen da. Jokoari jarraitzen dute... Simonek guztiok mingaina ateratzeko dio. Simonek mingaina gordetzeko dio. Simonek hamar salto emateko dio. Jaitsi eskuineko eskua. Une honetan guztiek eduki behar dute eskuineko eskua bizkarrean; eskuineko eskua jaitsi dutenek, beraz, jokotik irten beharko dute.

“A” letrarekin hasten diren izenak dituzten horiek kukubilko jartzeko dio Simonek. Kukubilko jarrita daudenek “miau” egiteko dio. Simonek kukubilko ez daudenek “hau” egiteko dio. Guztiak isiltzeko dio Simonek. Kukubilko daudenak altxa daitezela dio.

Jokoan jardun ezazu grazia duen bitartean. Gero, esaiezu esertzeko eta solas egiteko: nor aintzat hartzen duten eta nor ez. Azal ditzatela zergatiak. Entzun ipuina eta solas egin ikasleen sendagileez. Noiz izan zen sendagilearengan joan ziren azken aldia? Zergatik? Sendagileak esandakoa bete zuten?...

MATERIALAK Ez da ezer behar.

LABURPENA *Gizakioi automobileren gertatzen zaien gauza bera gertatzen zaigu: abiadura handitzeko azeleragailua eta gutxitzeko balazta omen dugu. Baina pertsona batzuek balazta non dagoen ahazten dute eta horma jotzen dute. Egunetik egunera bizkorrago doaz, hitzordu batetik bestera. Txakurtxo saltokari, jostakin eta zaunkalari batek irakasten dio Josuri bere eguneroko eldarnioari abiada gutxitzeko balazta aurkitzen.*

SAIOAREN GARAPENA* Ipuina entzun baino lehen, esaeizu ordu-tegi bat egiteko. Ikasle bakoitzak berea marraz dezala. Asteazkenean zehar egiten dituzten jarduerak zehaztu beharko dituzte ordu-tegian.

Hori egin ondoren, entzun arretaz ipuina eta galdetu ikasleei Josuri gertatzen zaiona gertatzen ote zaien. Ondoren, esaeizu koadroan agertzen den informazioa aztertzeko eta kontuak egiteko: zenbat ordu ematen duten telebista ikusten, zenbat ordu kirol egiten, zenbat ordu lagunekin jolasten, zenbat ordu ikasten, zenbat ordu eskolatik kanpoko jarduerak egiten, zenbat ordu jaten, zenbat ordu beren buruak txukuntzen, eta abar.

Saioa bukatzeko, esan orri beraren atzealdean ariketa bera egiteko etxean, baina oraingo honetan ordu-tegi onena idatziz: nolako egunak izatea gustatuko litzatekeen. Interesgarria izango litzateke ordu-tegi hori familiarekin batera egitea, senideek ere ikus dezaten denbora nola antolatzen duten.

MATERIALAK Igandetik larunbaterako 24 orduko ordu-tegia, ordenagailuan egingo dena, eta ikasle bakoitzarentzako fotokopiak. Ordenagailurik ezean, orri zuriak eta lapitzak.

* Gurasoentzat ere bai.

LABURPENA *Elenak zapatila berriak behar ditu. Amarekin doa erosketak egitera eta zapatila-pare batzuk probatzen ditu, baina gustatzen zaizkionak markakoak dira. Amak ezin dituztela horren zapatila garestiak erosi eta merkeagoak aukeratu beste biderik ez dagoela esaten dio. Oraindik gogoratzen du une hura eta ez du batere gustukoa.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun aurretik, prendetan jokatuko dute. Lasai egon... neska-mutilentzako bertsio egokia da! Pertsona bakoitzak bere jantzitegira joan beharko du irudimenaz baliatuz: bere jantzien zerrenda egin beharko du, zapatak, galtzerdiak eta barruko jantziak barne. Dena orri batean idatziko du. Gogora ezazu isilpeko informazioa dela. Esaiezu, gogoratuz gero, jantzien kolorea eta marka adierazteko. Ez dezatela deus ere ahaztu.

Zerrenda egiten bukatzen dutenean, eskaiezu ezaba dezatela zerrendatik gustatzen ez zaien guztia; ondoren, esaiezu erosteko aukerarik izanez gero jantzitegian eduki nahiko luketena adierazteko. Jantzi horien moda, kolorea eta marka zehaztu beharko dituzte.

Elkarri adierazi informazio hori, zergatiak galdetuz, eta ondoren, entzun arretaz Elenaren ipuina. Ikasleek Elenaren eta amaren jokabideei buruzko iritzia adierazi beharko dute. Galdetu ipuinean gertatzen den antzeko egoerarik gertatu ote zaien.

MATERIALAK Papera eta lapitza.

LABURPENA *Partidua arras hunkigarria da. Danik eskuetan du garaipena. Zaleak urduri samar daude. Danik lehenengo jaurtiketa jaurtitzen du, baina bigarrenean huts egiten du. Horrelakoa da bizitza: gauza batzuk lortzen dira, beste batzuk, ez. Lorpena ez ezik, ahalegina ere baloratzen ikastea da gauzarik garrantzitsuena.*

SAIOAREN GARAPENA* Oraingo honetan, gurasoekin ere elkartuko gara. Bilatu guztiontzako ordurik egokiena. Saio honetan neska-mutilek sortuko dute solasaldia. Gurasoak beren oroitzapen eta pasadizoez mintza daitezen lortu beharko dute, elkarrekin une atseginak igarotzearren.

“Nahietan” jokatu dute. Lehenengo, antolatu ikasgela bi biribil zentrokidetan. Barrualdean gurasoak jarriko dira eta kanpoaldean, seme-alabak. Taldeak saioaren moderatzailea aukeratu du. Garrantzitsua da guztiek, bularrean itsatsita, izenak letra handiz idatzita izatea, elkarri deitzeko. Daniren ipuina entzun ondoren, moderatzaileak solasaldia sortuko du: Nola sentituko zinatekete Dani izango bazinate? Inoiz gertatu al zaizue alferrik ahalegintzea? Oso interesgarria izango litzateke pasadizoak xehetasun guztiekin kontatzea. Bien bitartean, gainerako neska-mutilen zeregina gurasoek esaten edo egiten dutena idaztea izango da. Hemen, moderatzaileak dauka aginte osoa. Nola gertatu zen, zergatik gertatu zen eta zer esan zieten, zer pentsatu zuten, nola sentitu ziren... Hori guztiari adi badago, jarduera bizkortuko da.

Saioak laburra eta entretenigarria izan behar du. Bukatzeko, moderatzaileak orri batean haurtzaroan egin ez zuten eta gaur egiteko irrikan daudena idazteko esango die nagusi guztiei. Ondoren, bakoitzak idatzi duena gainerakoei adierazi die eta zergatiak azalduko dizkie.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

* Gurasoentzat ere bai.

ZORIONAREN ZERRENDA

AUTOESTIMUA

NORBERAREKIKO BERIGUNEA

LABURPENA *Betaurreko urdinekin mundua urdin ikusten da. Betaurreko gorriekin, gorri. Betaurreko gardenekin, benetan den bezalakoa. Komunikabide batzuk gauzen alde txarrak besterik ez agertzen setatzen dira eta Danik kontu hori orekatzea erabaki du. Arras erraza da: papera, lapitza eta behaketa zein arreta pixka bat besterik ez ditu eskatzen.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, hiru laguneko taldetan lan egingo duzue. Talde bakoitzari egunkari bat emango diozu (egunkariak desberdinak izango dira). Egunkaria burutik burura irakurri beharko dute eta zenbat berri txar eta zenbat on dagoen zenbatu. Ondoren, talde bakoitzak egin berri duen ariketari zer deritzon adieraziko du. Gero, ipuina entzungo duzue. Ipuina bukatzean, aste horretan gertatu zaizkien gauza onen zerrenda egiteko esango diezu. Elkarri kontatuko dizkiote eta galdetu ea zer deritzoten ariketa hau astean behin egiteari, ahanzturaren aurka txertatzeko. Merezki du-eta une atseginak gogoratzea!

Jarduera hau egin zuen talde bati egunkariari gutun bat bidaltzea bururatu zitzaion, berri gehienak txarrak zirenez gero, berri on gehiago sartzeko eskatzeko. Ondo legoke gauza bera egitea.

MATERIALAK Asteko egunkariak.

BI IZATEAREN ABANTAILA

BIZITZARAKO GAITASUNAK

TENTSIOA ERABILTZEA

LABURPENA *Nereak eta Danik inoiz bezala borrokan jardun dute. Irrati-kasetea izan da, berriro ere, bien arteko gatazkaren zergatia. Nebak kasetea baimenik gabe erabiltzeak haserretzen du Nerea. Aitaren bitartekotzari esker, eta umoreari esker, partekatzea erabakitzen dute: egun batzuetan, Nereak erabiliko du; beste batzuetan, nebak. Zorionez, bi neba-arreba besterik ez dira; hala izango ez balitz, gogokoen musikaz gozatzeko egun gutxiago izango lukete.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun ipuin hau, eta ondoren, mintza zaitzte pertsonaia bakoitzaz. Zer gertatuko litzateke boxeo-borrokaldira, futbol-partida edo saskibaloi-partida batean jokozainik egongo ez balitz? Solas egin dezagun horri buruz, eta ondoren, gogora ditza-gun gure borroka famatu haiek.

Borrokan jardun al duzu?

Non?

Noren kontra?

Nola bukatu zen borroka?

Zenbat ubeldura izan zenuen?

Jokozainik al zegoen?

Nolako arbitrajea egin zuen?

Nahiko zenukeen norbait jokozain izatea?

Borroka fisikoaz ez ezik, beste borroka batzuek ere ari gara. Horren saio sutsuan inork minik har ez dezala espero dugu!

MATERIALAK Ez da ezer behar.

GAIXORIK	
DROGAK	SENDAGAIK

LABURPENA *Osasunak gaixotasuna arrazoiketaz erabiltzea ere esan nahi du. Pertsona batzuek, ondoezik egotean, botikak sendagile bati kontsultatu gabe hartzen dituzte. Batzuetan, gorputzak egiten duen baimen eta atsedeen hartzeko deia besterik ez da izaten ondoeza. Kasu horietan nahikoak izaten dira laztanak eta etxeke sendabi-deak.*

SAIOAREN GARAPENA Saio honetarako ondoren proposatzen dizugun antzeko koadro bat egin beharko duzu eta neska-mutilei kopia bat eman beharko diezu, bete dezaten. Lehenik eta behin, istorio hau entzun behar dute, eta gero, koadroa bete:

ARAZOA	KONPONBIDEA
Buruko mina dut	
Tripako mina dut	
Sukarra dut	
Hileko mina dut	
Gripea dut	
Pikorta irten zait	
Zangoan ubeldura egin berri dut	
Begietako infekzioa dut	
Estresaturik nago	
Hagineko mina dut	
Zango batean txokolate beroa erori zait	

Koadro honetan konponbidea idazteko toki nahikoa utzi behar da.

Neska-mutilek erantzuten dutenean, eskaiezu erantzunak parteka ditzatela eta bukatzen dutenean, proposa iezaiezu bakoitzak etxera eraman dezala eta aitona-amonek eta gurasoek emandako erantzunekin bete dezatela.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

NIRE GALTZAK

BIZITZARAKO GAITASUNAK

ERABAKIAK HARTZEAK

LABURPENA *Elenak horren gogoko zituen galtzak erosteko dirua lortu zuen. Lehengusinari berarekin joateko eskatu zion, baina gautzak korapilatu egin ziren. Lehengusinari ez zitzaizkion Elenak gogokoan zituen galtzak gustatzen. Beste modelo ausarti eta modernoagoak probarazi zizkion, baina ez zuen arrakastarik izan. Lehengusinak behin eta berriro esan bazion ere, Elenak berak erabakitakoari eutsi zion. Hasiera batean lehengusina nahigabetu egin zen, baina gero, egoera ulertu zuen. Nork bere erabakiak hartzeak ez du lagunak galtzea esan nahi.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta gero solas egin ezazue haren gainean. Galdetu norbaitek dirua aurrezten diharduen eta, hala bada, zertarako erabiliko duen. Piztu taldearen partaidetza ondorengo galdera erabiliz: demagun une honetan.... euro dituzula (proposatu kopuru desiragarria, handia), gaur gastatzeko. Zer erosten xahutuko zenuke?

Berriro ere, aztertu zergatiak, hau baita garrantzitsuena halako jardueretan. Hobe duzu ideiarik iradokitzen ez baduzu, ikasleen erantzunetan eragina izateko arriskurik egon ez dadin.

Saioa bukatzeko, beste gauza bat egin dezakezu. Demagun ikasleek gogokoen dutena erostera joateko asmoa dutela. Norekin joango lirateke? Zergatik? Eta bakarrik joatea erabakiz gero, zergatik dute nahiago bakarrik joan?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

IZARRAK

OHITURA OSASUNGARRIAK

LANA ETA ATSEDEA

LABURPENA *Badaude telebistan ikusten ditugun izarrak, baina zeruan ikusten direnak bezain distiratsuak ez direnak, norberak barrutik daramatzanak bezain ikusgarriak ez direnak. "Izar-materia gara", esan dute zientzialari ospetsuek. Berezko argiaz dirdira egiteko, gogoa piztea eta emanaldia hastera besterik ez da egin behar. Horrela egin zuten Bizitzaren Abenturaren protagonistek. Gogaitasuna gainetik kentzeaz gain, dibertsioa irudimen kontua dela konturatu ziren.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, joan zaitezte jolastokira baloirik gabe eta alde zuzenetik pentsatutako planik gabe. Konta iezaiezu olgatzeko tartetxo bat dutela. Oraingo honetan, ordea, zuk ez duzula ezer prestatu; oraingo honetan, haiei dagokielako jostatzeko jardueren bat antolatzea. Jarri behar duzun baldintza bakarra antolatuko duten plana taldean egitea da. Esaiezu jarduera hori antolatu eta egiteko 25 minutu izango dituztela. Baldintza bakarra dago: ezin da inor taldetik aldentu.

Jolastokira edo jarduera egiteko aukeratu duzuen tokira heltzen direnetik denbora bukatu dela esaten diezun arte, ezkutatuta daramazun bideokamera piztuko duzu, dena grabatzeko. (Bideokamerarik ez baduzu, erregistratu deigarri gertatzen zaizkizun portaerak zure buruan eta koadernoan, bukaeran haiei buruz mintzatzeko). Hori egin ondoren, entzun arretaz ipuina. Zer egiten duzue deus ere egin behar ez duzuenean?

Sortu solasaldia galdera horren bidez. Aztertu zergatiak, ez ahaztu. Gero, esaiezu kontu dezatela zein diren egun arrunt bateko unerik gogaikarrienak eta zergatik diren horren aspergarriak.

Saioa bukatzeko, ikusi ezkutuko kameran grabatutako irudiak eta eskaiezu iritzia: Egia al da dibertsioa irudimen kontua dela? Zer deritzote?

MATERIALAK Bideokamera ezkutua (aukerakoa).

NIRE AITATXOREN BERROGEIAK

DROGAK

ALKOHOLA

LABURPENA *Badago hainbat hautabide bizitzari topa egiteko edari bat aukeratzeko. Honatx aukera bikaina: laranja-koktela, esne kondentsatua, bainila, izotza eta alkoholik eza. Inor ez da mozkortzen eta guztiek primeran pasatzen dute, baita haurrek ere. Galdetu Elenari.*

SAIOAREN GARAPENA* Ipuina entzun baino lehen, sortu solasaldia ondorengoak galdetuz:

Demagun gaur aitaxoren urtebetetzea dela. Nola ospatuko zenukete etxean? Nor joango litzateke? Zer egingo lukete? Zer musika entzungo zenukete? Zer jan eta edango zenukete? Ondoren, egin gauza bera bihar Gabon gaua dela imajinatuz.

Segidan, entzun arretaz ipuina eta galdetu ikasleak lehen mintzatu direnaren antza ote duen eta zergatik. Bukatzeko, jar zaitezte ados

* Gurasoentzat ere bai.

eta eskatu gurasoen laguntza, gurasoek eta eskolak Bizitzaren Abenturari topa egiteko gau berezia antolatzeko. Bilera xumea eta laburra, musikarekin, dantzarekin eta, topa egiteko, alkoholik gabeko edari gozo eta atseginarekin.

Berrikusi 2. disko honetako 10. ipuinak (“Nolabaiteko otzara”) proposatutako jarduera eta kontuan har ezazu saio biak saio bakar batean egiteko aukera. Interesgarria izango litzateke. Zeuk erabaki. Hala egingo bazenu, bizitzari topa egin (alkoholik gabe, noski) eta edaten duzuen bitartean, entzun arretaz 10. ipuina. Entzun ondoren, solas egin honelako edariak egiteko errezetei buruz, eta neska-mutilek gogoan hartu beharko dute dena. Horrekin guztiarekin, ekitaldiaren oroitza-txostena egin beharko dute eta gurasoei oparitu, ikasle-en nahiak ez ahazteko.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

TIRO... ZER?	
DROGAK	SENDAGAIK

LABURPENA *Danik txakur bat ikusten duen guztietan 4 urte zituenean gertatutakoa gogoratzen du: bere txakurtxoarekin jolasean ziharduen eta ideia ona iruditu zitzaion amonak tiroiderako hartzen zituen pilula guztiak hari ematea. Adi ez bagaude, sendagai batek min egin dezake, esaterako, haurren helmenean uzten ditugunean, ipuin honetan gertatzen den bezala.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz istorioa eta gero, eskaiezu pentsa dezatela non gordetzen zituen Daniren amonak tiroiderako hartzen zituen pilulak. Emaiezu papera eta lapitz bana. Esaiezu ezkutatetan jolasteko. Galdera entzuten dutenean, galdera orriaren edozein lekutan, ordenarik gabe, idatzi beharko dute. Emaiezu oso denbora gutxi (5 segundo) erantzuteko.

Hona hemen galdera: ba al dakizue etxeko zein tokitan gordetzen diren...:

Egunkari zaharrak; Komuneko papera; Pospoloak; Ordaindu gabe dauden ordainagiriak; Aspirinak; Arropa garbitzeko garbigarria; Mailua; Arropa zikina; Erabilitako poltsak; Sendagaiak; Aberearentzako janaria; Gabonetako arbola; Kafea; Intsektizida; Kandelak; Plantxa; Giletak; Bizar-xaflak; Ur beroko poltsa; Beirazko ontziak; Hariak eta orratzak; Amatxo eta aitaxoren preserbatiboak; Xukadera garbiak; Familiako argazkiak; Kotoia; Artziak; Lata-irekigailua; Esparatrapua; Lixiba; Zapatak.

Gauza-zerrenda hori arbelean idatzi beharko duzu

Saioa bukatzeko, eskaiezu orriak elkarri trukatzeko. Ikasle bakoitzak orri berri horretan, idatzita dagoen leku bakoitzaren azpian, leku horretan gordeta egon beharko litzatekeen gauzaren izena idatzi beharko du. Horretarako, arbeleko zerrendari begiratu beharko diote. Ez zaie behar baino gauza gehiago gelditu behar: gauza bat leku bakoitzean eta leku bat gauza bakoitzarentzat.

MATERIALAK Lapitza eta papera.

GEZUR CHIZALDIA

DROGAK

TABAKOA

LABURPENA *Gurasoen eskolak tailer bat antolatu zuen publizitate-iragarkiak “irakurtzen” ikasteko. Primeran pasatu zuten gurasoek iragarkiek esaten dituzten gezurrak atzematen eta ezkututzen dituzten egiak osatzen.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta ondoren, egin galdera hau: Zuen buruak publizitate-iragarkiren baten biktimatzat jotzen al dituzue? Hala bada, kontu iezaguzue. Horri buruz mintzatu eta gero antolatu hiru taldetan ikasleak. Talde bakoitzari iragarki bat eman eta eskaiezu adieraz ditzatela gezurtzat jotzen dituzten egoerak edo alderdiak, eta azal ditzatela ezkutatuta dauden egiak. Jarraian, talde bakoitzak gainerakoei egindakoa eta egindakoaren zergatiak jakinaraziko dizkie.

MATERIALAK Alkohol, tabako eta bestelako produktuei buruzko publizitate-iragarkiak, aldizkari edo egunkarietatik hartu direnak.

PARKE ZALEA

DROGAK

ALKOHOLA

LABURPENA *Nagusi askok dibertsioa eta alkohola nahastu egiten dituzte. Daniren aitonari horrela gertatzen zitzaien, parke batean ongi pasatzeko hautabide hobeak aurkitu zituen arte. Harrezkero parke zalea da, eta solas egiten diharduten dozena erdi lagunen aldekoa.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta ondoren, solas egin honi buruz. Gero, esaiezu bakoitzak gogora dezala noiz ikusi duen norbait mozkor-mozkor eginda. Zer gertatu zen? Nor zen? Non zegoen (etxe barruan edo etxetik kanpo)? Nola bukatu zuen?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

OSTIRAL ITXURAKO IGANDEA

BIZITZARAKO GAITASUNAK

HARREMANAK IZATEA

LABURPENA *Josuren ustez, aitonaren etxean bazkaldu gabeko igandea ez da igandea. Aitonaren ipuin eta asmakizunen mira du. Arrazoa du. Gainera, familiako bazkariak gustagarriagoak izaten dira.*

SAIOAREN GARAPENA Presta ezazu neska-mutilentzat jateko oso onak diren bospasei jakiez beteriko erretilu bat. Jarduera hobe da haurrak oso gose direnean egiten bada. Saioa hasteko, erakutsiezaiezu erretiluaren edukia. Ondoren, galdetu norbaiti zerbait jan nahi duen. Bospasei laguni eman diezaiekezu aukera, erretiluan dauden jaki-kopuruaren arabera. Jateko prest daudenean, joko honen baldintza jakinaraziko diezu: bainugelari jan beharko dute, bakarrik, ahalik eta denbora gutxienean. Ahal duten azkarren itzuli beharko dute ikasgelara.

Egin ezazu banan-banan. Bata itzultzen denean, joan dadila bestea. Itzultzen dena eseri egingo da eta ez du tutik ere esango. Gainerako ikasleak ikusleak eta zenbatzaileak besterik ez dira izango. Ozen zenbatu beharko dute, joan dena itzuli arte. Guztiak itzultzen direnean, eskaiezu nola sentitu diren kontatzeko. Galdetu zein jaki jan duten eta nola sentitu diren bainugelari bakarrik jaten.

Ondoren, entzun arretaz ipuina eta ondorengoei buruz solas egin:

Norbaitekin ala bakarrik bazkaltzen duzue? Norbaitekin bazkaltzen baduzue, zertaz solas egiten duzue? Bazkaltzen duzuen bitartean, telebistarik, irratarik edo musika-ekiporik piztuta al dago? Zer sentitzen duzue? Zergatik egiten duzue? Azkar ala astiro jaten duzue? Non bazkaltzen duzue? Nolakoak izaten dira igandeetako bazkariak?

Zer gertatuko litzateke bainugelari pribatuki egiten duguna jendarean egingo bagenu?

MATERIALAK Ez da ezer behar.

ITZALI	
DROGAK	TABAKOA

LABURPENA *Nereak badaki gauzak nola esan. Zailak badirudite ere, beti aurkitzen du gauzak esateko modu zuzena, egokia eta adeitua. Horrela egin zuen aireportuan aitaren hegaldiaren zain zegoen bitartean, aldameneari erretzen ziharduen emakume batekin. Danik ez zuen sinesten. Berarentzat arraz zaila izango zatekeen emakume horri zigarroa itzaltzeko esatea.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun aurretik, esaiozu taldeari aulkietan ohe batean baleude bezala esertzeko, ahoz gora edo mahaiaren gainean ahoz behera. Gero, esan begiak itxeko. Irudimenezko ariketa bat egingo duzu. Jarri musika giro egokia sortzeko. Guztiek zigarroaren keari arretaz begiratuko diote, kean pentasatu beharko dute. Umorea erabili lasai daitezten. Begiak itxita dituztela, esaiezu une horretan dauden lekutik ibil daitezela, kea zein ahotik irteten den aurki dezatela, zein ibilbide duen aurki dezatela: nondik sartzen den, nor ukitzen duen eta zein usain duen. Astiro egin hori guztia. Gero, esaiezu esnatzeko eta bakoitzak azal dezala non zegoen, norekin zegoen eta nola sentitu zen. Garrantzitsua da ikasleen deskribapenak zehatzak eta doiak izatea.

Ondoren, entzun arretaz ipuina eta entzuten bukatzen duzuenean, galdeiezu irudimenaz jolastean ikusi duten pertsona horrekin Nereak

egin zuena egiteko gai izango liratekeen. Zer gertatuko litzateke hala egingo balute?

MATERIALAK Musika tresna ezta lasaitzeko.

EZETZ, SEGURU

BIZITZARAKO GAITASUNAK

HARREMANAK IZATEA

LABURPENA *Gerta daiteke lagunekin bat ez egitea lagunak galdu gabe. Nork bere erabakiak hartzeak ez du lagunak galtzea esan nahi. Mikelek ez du arratsalde osoa telebista ikusten eman nahi, Andresek proposatzen duen moduan. Etxean sartuta egoteko eguraldi ederregia dagoela uste du. Lagunak ez dira Andresi EZ esatera ausartu eta etxean geratzea erabaki dute. Mikelek, berriz, ezetz esan dio eta parketik ibiltzera doa. Ezagun baten lehengusinarekin topo egin du, elkarrekin izozkiak jan dituzte eta primeran pasa du. Batzuetan BAI esaten dugu, beste batzuetan, EZ. Guztia nahi dugunaren arabera izango da, ezeren edo inoren beldur izan gabe.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, “BAI eta EZ” jokoan jolastuko duzue. Bi ikasle beharko dituzu. Azaldu taldeari bi ikaskideei galderak egin beharko dizkietela, eta erantzunek BAI edo EZ izan beharko dutela. Deitu lehenengo beti BAI erantzungo duenari. Azaldu bere gainean sorginkeria eroriko dela, eta burutik eza gutzen dituen hitz guztiak ezabatuko dizkiola. Hitz bakarra geratuko zaio buruan: BAI. Ikaskideek galdetzen dioten guztiari BAI erantzun beharko die. Honela, bada, ekin jokoari.

Musu bat emango zenidake? BAI

Irakaslea gogoko ez duzula esan duzu, ezta? BAI

Usain txarra al duzu? BAI

Dirua maileguz emango al didazu? BAI

Itsusia al zara? BAI

Ba al zatoz banketxe bat lapurtzera? BAI

Gero, ikaskideek galdetzen dioten guztiari EZ erantzun beharko dien

ikaslea sartuko da, eta jokoak aurrera dirau:

Gustatzen al zaizu eskola hau? EZ

Zure ama maite al duzu? EZ

Argia al zara? EZ

Hura zure laguna al da? EZ

Beldur al zara? EZ

Ondoren, esaeizu ikasle bi horiei sentitu dutena azaltzeko, iruzkinak egiteko.

Orain bai, entzun arretaz Mikelen ipuina eta sortu solasaldia berriro ere.

EZ nola esan praktikatuko dugu. Horretarako, paperetan idatzita lau egoera eramango dituzu ikasgelara. Paper bakoitzak zenbaki bat izango du. Esaeizu 1etik 40ra arteko zenbaki bat esateko. Zuk presatatutako paper baten zenbakia esaten duenak paper horrek proposatzen dionari EZ esan beharko dio. Kontuan hartu zera garrantzitsu hau: EZ hori jarrera onez esan beharko da, hau da, begirunez, inolako erasorik gabe eta itzulinguruka erantzun gabe.

1. egoera: Seme...norbaitek deitzen badit, esaiozu joan naizela, ez dut telefonoz hitz egiteko gogorik.

2. egoera: Hara, hortik dator Karlos, gogaikarri hori! Ezkuta gaitezen!

3. egoera: Ez zara jai horretara joango. Argiak bakarrik joango gara, ezta?

4. egoera: Zeu zara ikasturte honetako ordezkaria izateko hautagai ezin hobea.

Egoera bakoitzean, taldearen iruzkinak hartuko dira kontuan.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

NIRE LAGUN MINA

OHITURA OSASUNGARRIAK

LANA ETA ATSEDENA

LABURPENA *Elenak “Zure laguna” izeneko aldizkariak dakartzan aholkuak -maitasun, edertasun eta osasunari buruzkoak-, aintzakotzat hartzen ditu. Aldizkaria buru-belarri irakurtzeagatik oso berandu oheratzen da. Goiz altxatzea izugarri kostatzen zaio. Lagunek gaixorik dagoela uste dute, hain betzulo handiak baititu. Eta arrazoa dute. Elenak lo gutxi egiten du. Bere adineko neskato batek hamar ordu inguru lo egin behar du, loaldiak gorputzari atsedena eman diezaion.*

SAIOAREN GARAPENA Ezer baino lehen, entzun arretaz ipuina, eta ondoren, solas egin ondorengo galderen gainean:

Zer ordutan oheratzen zarete eta zein ordutan altxatu? Zergatik?

Nahikoa iruditzen al zaizue, edo gutxiegi edo gehiegi deritzozue?

Norekin lo egiten duzue? Zein da logelaren tenperatura?

Zein da altxatzean entzuten duzuen lehenengo soinua? Zer da lokartzean entzuten duzuen? Maiz amets egiten al duzue? Zer amets egiten duzue?

Horiek dira eskuetan dituzun amuetako batzuk neska-mutilek lo egi-terakoan dituzten ohiturei buruzko solasaldi ona sortzeko.

MATERIALAK Ez da ezer behar.

DORTOKA JAUNA

OHITURA OSASUNGARRIAK

SEGURTASUNA

LABURPENA *Gaur egun, dena azkar nahi dugu: automobila, bazkaria... Horregatik, premiazkoa da geldotasuna baloratzen ikastea. Entzungo dugun ipuinean, Mikelek eta Josuk argi dute gidari profesionala astiro ibiltzen dena eta berarekin daramatzan pertsonen biziak arriskuan jartzen ez dituen dela.*

SAIOAREN GARAPENA Entzun arretaz ipuina eta eskaiezu neska-mutilei hari buruzko iruzkinak egin ditzatela. Ondoren, jarri musika

eztia lasaitzeko eta hasi jarduera. Esaiezu begiak ixteko eta zuk esango diezuna irudikatzen saiatzeko:

Lehenengo egoera: Demagun gogokoen duzun neska edo mutil horrekin topo egiten duzula. Solas egiten diharduzue, ikusi duzuen film bati buruz hizketan ari zarete, eta gero, eskutik heldu eta elkarrizketa ematen diozue. Bukatzen duzunean, musika eten eta galdetu: Zer iruditu zaizue, denbora azkar ala astiro igaro dela?

Bigarren egoera: Eskolatik irten, eta etxerantz abiatzen zarete autobusean. Sargori dago eta semaforoan zirkulazioa erabat gelditzen da. Goseak amorratzen zaudete. Autobus-gidaria jaisten da, zer gertatzen den ikustera doa eta minutu batzuk itxaron beharko dituzuela jakinarazten dizue. Zer iruditu zaizue, denbora azkar ala astiro igaro dela?

Hirugarren egoera: Demagun zineman zaudela, baina ikusi nahi ez duzun filma ikustera sartu zarela. Filmari arreta jartzen saiatzen zara, baina ez duzu tutik ere ulertzen. Hizkuntza arrotza da, eta gainera, irudiak ez dira zure gustukoak. Zoritxarrez, ezin izango zara filma bukatu arte atera. Zer iruditu zaizue, denbora azkar ala astiro igaro dela?

Elkarri kontatu sententzioak eta iritziak.

Zeren arabera da denbora azkar ala astiro igarotzea? Zure bizitzako zein gauzari emango edo kenduko zenioke abiada?

MATERIALAK Musika ezitia.

090 FAMILIA NORMALA

OHITURA OSASUNGARRIAK

LANA ETA ATSEDENA

LABURPENA *Atsedena etxeko pertsona orok duen eskubidea da. Pertsona baten atsedena ezin da beste pertsona baten lanean oinarritu. Josuk eta Mikelek ezin dute sinetsi etxea garbitu, oheak egin, janaria prestatu, etxea txukundu eta han-hemenka garbitzen duen bakarra ama den etxerik badela. Sinetsita daude ohikoa etxeko lanak guztion artean egitea dela, haien etxean gertatu ohi den bezala.*

SAIOAREN GARAPENA Ipuina entzun baino lehen, ekin diezaiogun ondorengo ariketari: Ikasleek zuk irakurriko duzun esaldiaren zenbakia jarri beharko dute, eta honen aurrean “B”, erantzuna baiezkkoa bada, eta “E”, ezezkoa bada, jarri beharko dute.

Ohikoa da emakumeek negar egitea.

Ohikoa da gizonek negar egitea.

Ohikoa da emakumeek eskumuturrekoak eramatea.

Ohikoa da gizonek eskumuturrekoak eramatea.

Ohikoa da emakumeak gizonak baino argiagoak izatea.

Ohikoa da gizonak emakumeak baino argiagoak izatea.

Ohikoa da emakumeak indartsuak izatea.

Ohikoa da gizonak indartsuak izatea.

Ohikoa da taxi-gidariak gizonak izatea.

Ohikoa da taxi-gidariak emakumeak izatea.

Ekin ariketa honi azkar. Iruzkinak sortuko dira, eta haietaz mintzatze-ko denbora nahikoa izan beharko duzue. Gero, entzun arretaz ipuina eta bukatzen duzuenean, esaiezu, Josuk istorio honetan kontatzen duenaren arabera, marka ditzatela azken esaldiak, eta komenta ditzatela zergatiak.

Zure etxean ohikoa al da amak etxeko lanak berak bakarrik egitea?

Zure etxean ohiko al da aitak eta zuk etxeko lanetan ez laguntzea?

Zuen ustez, nolakoa da familia normal bat?

MATERIALAK Lapitza eta papera.

OSASUNKUME. Bizitzaren Abentura 6 eta 11 urte arteko neska-mutilengan ohitura osasungarriak sorrarazten dituen saila da. Horregatik, hasiera bertatik hasi nahi dugu. Solasaldiak edo elkarrizketak sorrarazi beharreko lehenengo ohitura osasungarria izan behar du: hizlari hobeak izaten ikasi behar dugu azken batean. Ohitura horrek beste ohitura osasungarri batzuk sortzen lagunduko digu.

Gidaliburu didaktikoak helburua lortzeko metodologia bideak eskaintzen ditu. Helburua, jakina, haurren artean beren eguneroko bizitzaren inguruko elkarrizketa sorraraztea da.